

# ARRASATE

## PRESS

Arrasate 1991ko Azaroak 15, 126. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean




**GORKA KNÖRR**  
komunikabideetako  
munduan  
lanean



## Lantegi-Eskola

**Irtenbide baliotsua arriskuan**



### HOTZ - BERO

KLIMATIZAZIOA

Maalako Errabala 33- etxabea  
Tfnoak: 79 70 98 eta 77 04 83  
ARRASATE

- AIRE GIROTUA
- BEROKUNTZA
- ERAUZKETA  
(Estrazloak)
- ARAZKETAK
- MANTENUA

**G**

ehienok parte hartu dugu noizbait, lantokian, tabernan edo lagun artean egindako txirrindulari-kinieletan. Umeek, berriz, txirrindulariak pasatzen direnean animatu eta handi izaten direnean txirrindulari famatuak izango direla amestearekin konformatu behar izaten dute. Gero, amets horiek praktikan ipinuzen dituzte jolasetan; urrutira joan gabe, aurtengo udan hiru ume jolasean ikusi nituen,



bata bizikletan bueltaka zebilen, beste mutiko biek "aupa Marino!" oihukatzen zuten bitartean. Hiru mutikoak txandatuz joaten

ziren, han ez zegoen bata besteari txandapasa egite-rik! Zer izango ote zen, bizikletan ibiltzeko gogoala ala Marino izateko gogoala?

Mikel

## **BULARREKO PATOLOGI UNITATEA**

### **Mamografia**

**Gune susmagarriak aurkitzea.**

**Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.**

**Bularreko ekografiak.**

**Bularreko tumoreen zitologia.**

**Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.**

# **GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA**



**DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.**

**Zerkaosteta, 17 etxabea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18**

# ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

### Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)  
Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE.  
Tfnoa: 77 05 65 Faxa: 77 09 40

### Laguntzailea:

Arrasateko Udala

### Zuzendaria:

Iñaki Mendiguren

### Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria, Agurtzane Loidi.

### Publizitatea eta harpidetzak:

Amaia Sanz  
Tfnoa: 77 08 15

### Maketazioa:

Goio Arana

### Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zاراia,  
Asier Aranguren, J. Velez de Mendizabal.

### Kolaboratzaileak:

Mikel Irizar, Karmele Zuazubiskar, Juan Martin  
Elexpuru, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso,  
Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus  
Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza,  
Blanka Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés,  
Karmelo Uribarren, Iñaki Aranburu,  
Hankamotz, Maite Toledo, Atalataikoan, ASA  
taldea, Xabin Arrieta, Txipi Ormaetxea,  
Arantxa Ozaeta.

### Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

### Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

### Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 7.000 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien  
erantzunkizunik.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan  
egiten da.

# Komunikabideen eraso kontrolagaitza

**A**zken hogeitamar urteotan mundua auzo txiki bat bilakatu da komunikabideei esker. Hondamendiak, oinaze nahiz albiste onak zerbitzatzen zaizkigu, dela gutxi arte urrutiko baztertzat genituen lekuetatik. Ez dakit noraino ez ote den desbideratu “gure” kontzeptua, jabetzari buruzko ideia askotan urtu egiten bait da, gero eta unibertsalago dugun auzo txiki honetan.

Mass-mediaren eraginak kontzientzia eta errealtatearen azalpena aldarazi ditu. Kultur—edo zibilizazio?— iraultzak ohizko koordenadak mugitu ditu, gero eta inpersonalago zaigun ekintza-lauki mugatura. Komunikabideek, beren bitartekoek, eta informatikak zuzentzen dituzte gaur eguneko kultur bideak. Gertu al gaude, inposatzen ari zaigunari aurre egiteko? “**Izena duen guztia omen da**” diogu euskaraz; “**hypo onoma piptei, genneton estin**” berriz grekeraz, gutxi gora behera ideia berbera adierazteko. Baina, gure egunotan, telebista eta gainerako komunikabideak dira errealtatearen notarioak: “**hori egia da kamerek jasoten badute, egunkarietan agertzen bada**”. Ukrainiar emakume batek dela zenbait egun ezagutarazten zidan atso-titz hark ere balorea galdu du: “**hori aspaldi gertatu zen... beraz gezurra da**”.

Poroetatik sartzen zaigu gaur egun

mundua, uneoro gure elkarrizketa eta etxeetan aurkitzen da eta herri guztien zalantza nahiz itxaropenak bizitzen ditugu hurbiletik. Dena den, barne-sentsibilitatea, solidaritatea eta unibertsalasuna komunikabideen bitartez handitzen ote den ala ez ikusteke dago. Fantasietako kutxa majikoa—hau da telebista— komunikazio zuzena irentsiko duen zulo beltza ez ote den bilakatzeko ari galdegin behar diogu geure buruari; izan ere, gure kultura, nortasuna, izaera bera galtzeko arriskutan ipintzen bait gaitu... jarrera pasibohutsa besterik exijitzen ez digun bitarteko horrek.

Komunikabideak kontrolatzeko planeta zahar honen lau izkinetan ematen ari den gerra nabariaren lekuko txundituak gara. Maxwell, ONCE, Polanco... maila garaian eta, gugandik hurbilago, egunero “sintonizatzen” dugun arlo apalagoan kristorenak jatzoten ari dira, gu sufritzaileon kontzientzia eta borondateetan erarik soti-lenaz dependentziak sortertzeko. Manipulazioa—nahita oker zuzendutako erabilkera— botereak izan dezakeen armarik emaritsuen da eta, beraz, errealtatea hiper errealismo bilaka daiteke, gezur eta errealtateaz gaindi. Gerta liteke, adibidez, jazoera jazo beharrean... jazoeraren interpretazioa gertatzea. Orduan, bai, dardaran ipintzeko atarian egongo ginateteke.

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL

# LILURA

zeure moda  
diseinatu eta sortzen  
laguntzen dizu

Zerkaosteta, 5 etxabea.  
Tfnoa: 79 89 72 ARRASATE

# comercial san juan

Garibai, 12  
Tfnoa: 79 13 05

# hikein

MARKO-JARTZEAK

Zerkaosteta, 4  
Tfnoa: 79 13 84



**gili gili**

Iturriotz, 9 Tfnoa: 79 94 57



**Liburu eta oparidenda**

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84

**ARAMAIO**  
**okjndegia**

Maisu Guridi, 3  
Tfnoa: 79 36 46

**IZAGIRRE**  
*barategia*

Bañez Dk., 18 ARRASATE  
Tfnoa: 79 59 86

• **Txitxinpe** •

**Berezitasunak:**  
Kafea, ardoa, urdaitegia,  
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33  
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

**Begoña**  
**lurrindegia**

**Drogeria / Jostailuak**  
**Opariak**

Gipuzkoa Etorb. 33,  
Musakola Auzoa. Tfnoa: 79 03 73

**Nekane Iglesias-i**

Arretaz irakurri dut zuri egindako elkarrizketa eta esaten dituzun zenbait gauzari buruz hitz egin nahi nizuke.

*"Gaur egun, diskriminatzeo hasi dira euskara erabiltzen"*, diozu. Harrigarria. Puerto Ricoko gobernadoreak gaztelaniaren aldeko neurriak iragartzen dituenean, zure alderdiaren gobernuak Príncipe de Asturias saria eta sekulako ohore eta programa bereziak eskaintzen dizkio telebistan, gaztelaniaren alde egindako lana goraiatuz. Gauza bera euskararen alde egiten denean, ostera, bereizkeria da. Nork ulertu?

PSOErena ez dela euskararen aurkako politika diozu. Urralburu zure alderdikidea Nafarroako gobernuaren buruan egon den urteetan euskara baztertzeko (berak bultzatu bait zuen Vasuencearen Lege negargarria) bereak eta bost egin zituen, inoiz ez zen Nafarroa Oinez bezalako ekitaldietan agertu (horretan ere, Allik erakutsi behar bidea) eta neke handiz sortzen ari ziren euskal irrtiak itotzeko ahaleginak egin zituen. Bestalde, non zegoen PSOE Bilbon Euskaltzaindiaren egoitza berria inauguratu zen egunean? Beste alderdi guztiak han zeuden. Sozialistak ez. Biharamunean Jauregik barkamena eskatu zuen. Beranduegi, beldur naiz. Jauregik berak edo zuk zeuk sinetsiko zenikete ETAk Madrilen, adibidez, egindako azken sarraskiagatik barkamena eskatu izan balu? Euskarari dagokionez, zuen sinesgarritasuna ere lur jota dago.

Jarraian Mondragoen sozialistak baztertuta zaudetela diozu. Egia gorria. Ez duzue batere eraginik. Zeuek aukeratutako ghettoan bizi zarete, isolamenduaren leize ilunean. Horraino eraman du partidua zure aurrekoen politikaitsuak. Eta horrexegatik aukeratu zintuzten zu, 25 urteko lan eta bestelako esperientziarik gabekoa, Arrasaten beren zerrendan sartzea lortzen zuten lehen profesional mondragoetarra zinelako.

Horregatik, ez pentsa, Nekane, betiko diskurtsoaz urrutira joango zaretenik. Erraza izan da etorkinen lepotik, euskararen kontrako banderari eraginez, partiduarentzako botuak eskuratzea. Baina politika horretxek eragotzi zizun Arrasateko lehen alkatesa izatea. Mondragoetarrek oro har, zu eta zure alderdia berea duten zerbaiten kontra zaudetela ikusten duten bitartean,

nekez jarriko dute alkatetza zuen eskuetan, horretarako beste edozeinekin hitzarmenak egiten badituzue ere.

Zeure alderdiari egin diezaiokezun mesederik handiena euskararekiko jarrerak aldatzen hastea da. Eta horretarako zure exenplua oso garrantzitsua izan daiteke. Segi euskara ikasten eta erabiltzen. Sorpresa bat baino gehiago har dezakezu. Zeren, badakizu?, euskara ez da nireta edo zureta, denona baizik.

Animo eta besarkada bat.

Joxe Aranzabal

**Nekane Iglesias eta euskara**

Duela bi aste (urriak 25) Arrasate Press-ari errepasotxo bat ematen arin nintzela, hor non aukera paregabea ikusten dudana orain dela zenbait hilabete niretzako ezezaguna zen Nekane Iglesias-i buruz zerbait gehiago jakiteko.

Izugarri poztu nau euskara irakurtzeko eta idazteko gai dela jakiteak, euskara ezer gutxi zekielaokan bait nengoan (aitortu behar dut nire herrian egoteko aukera handirik ez dudala eta eskotan prentsa bidez soilik jasotzen ditudala berriak).

Elkarrizketan, beste gauza batzuen artean, PSOEko zinegotziek eta orokorrean euskaraz ez dakien jendeak plenoak ulertzeko duen eskubideaz ari delarik, honako hau esaten du: *"Gaur egun, diskriminatzeo hasi dira euskara erabiltzen"*. Ez dakit honek irazkin beharrik duenik ere.

Benetan hala pentsatzen duzu, Nekane? Hortaz, euskara aurrera ateratzeko hainbesteren ahaleginak (eta badakit politikoak tartean sartzen direnean, gauzak lardaskatu egiten dituztela maiz), zertarako eta euskalduna ez dena "diskriminatzeo" bakarrik? Ez al duzu imajinatzen beste motibazio positiboagorik izan dezaketarik euskara erabiltzeko?

Euskaraz irakurtzeko eta idazteko gauza zarenez, ez legoke txarto esaldi gogor hori gehiago argituko bazenu.

Esperoan naukazu.

Txipi



**ARANBURU COTEMAR**

**Garraio-agentzia**

Zaldispe, 3 ARRASATE Tfnoak: 78 52 34 / 79 53 99

# Zein iritzi duzu eutanasiari buruz?



**Mari Carmen Rubio**  
(Langilea)

Pertsona aurkitzen den egoeraren arabera, baina uste dut alde nagoela, batez ere pertsonaren onerako, ez sufritzeko.



**Jose Luis Lopez**  
(Langilea)

Ni alde nago; pena asko ematen du pertsona sufritzen ikusteak; gainera, hori bizitzen ari diren pertsoneri edo familiakoei —hau da, sufritzen daudenei— galdetu beharko litzaieke eta ez kaleko jendeari.



**Xabier Uribesalgo**  
(Langabetua)

Kasuaren arabera; estremoak badira, esan nahi dut, asko sufritzen ari bada eta irtenbiderik ez badauka, ni eutanasia aplikatzearen aldekoa naiz. Uste dut familiak erabaki beharko lukeela.



**Maria Cruz Duran**  
(Etxekoandrea)

Ohean egoteko, inor eza-gutu gabe eta, hobe da hiltzen uztea. Medikuek esan dezake zer aukera duen bizitzeko eta gero familiari utzi aukeratzen, zeren bizitzeko aukera badauka, familiak ez dio hiltzen utziko.




**Lorenza Fernandez**  
(Pentsionista)

Nik uste dut sufritzen egotea baino nahiago dudala eutanasia, eta gaixoak aukeratu beharko luke, koman ez badago behintzat, bestela familiak aukeratu beharko luke eta.



**Mikel Hierro**  
(Langilea)

Bakoitzak aukeratu behar du; dena dela, ez dut uste eutanasia legalizatu behar denik, nahiko arrisksua bihur daiteke eta. Koman egonez gero eta halako kasuetan erabili beharko litzateke denon onerako.



**HOTZ-BERO**

klimatizazioak  
zera JAKIN ERAZTEN DU:

ZIBRO KAMIN, EUROSTOVE, CORONA... berogailuen kontsumorako egokiak eta gomendatuak ez diren erregaiak daudenez merkatuan, HOTZ-BEROk ez du bere gain hartzen inolako erantzukizunik "PETROSOL" edo "PETROCLAIR" ez den beste erregairik erabiltzen bada, bi hauek bakarrik bait dira LORICA eta HOTZ-BEROk garantizatuak.

**Eska ezazu beti "PETROSOL" edo "PETROCLAIR", behar bezalako etiketaz eta prezintuaz.**

Maalako Errabala, 33-etxabea. ARRASATE

**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**ERITETXEAK**

Arrasateko Eskualde-Ospit. ....	79 53 00
Igualatorioa .....	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak) .....	79 39 00
(emakumeak) .....	79 44 11
Buru osasunerako zentrua .....	79 90 11

**GURUTZE GORRIA**

Bergara .....	76 55 76
---------------	----------

**DYA**

Antzuola .....	76 62 91
----------------	----------

**ANBULATORIOAK**

Arrasate (Larrialdiak) .....	79 13 57
(Txanda hartzeko) .....	77 03 46
	77 07 21
Oñati .....	78 08 52
Eskoriatza .....	79 98 58
Aretxabaleta .....	79 74 58
Aramaio .....	(945) 45 51 16

**ANBULANTZIAK**

Gipuzkoako ambulanziaz .....	45 87 44
------------------------------	----------

**UDALTZAINGOA**

Oñati .....	78 04 11
Bergara .....	76 14 69
Arrasate .....	79 14 39
Aretxabaleta .....	79 10 52
Eskoriatza .....	79 03 22

**ERTZAINZA**

Arrasate .....	79 71 99
----------------	----------

**SUHILTZAILEAK**

Udal taldea .....	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile	
burua .....	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea .....	78 28 00

**MATXURAK**

Urak (udal zerbitzua) .....	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero) .....	79 05 81
Gasa .....	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

**GARRAIOAK**


Taxiak .....	79 12 22
P.E.S.A. ....	79 14 19

**HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ZENTRUAK**

Iturbide Egoitza .....	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza .....	79 81 57

**KONTSUMITZAILEAREN ZAKO INFORMAZIOA**

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak .....	79 87 77
--	----------



15

**OSTIRALA**

- Zinea: Alai: "La fosa comun" (5-7.30-10).
- Goardiako farmazia: Egunez: Morales, S. Andres. Gauez: Puy, Bergara.

16

**LARUNBATA**

- Zinea: Alai: "Oscar, quita las manos" (5-7.30-10)
- Bideo-emanaldia: "Batman", Monterronen arratsaldeko 4.30etan.
- Txiste antzeztuen lehiaketa, Aretxabaletako Zاراia zinemari, arratsaldeko 4.30etan.
- Goardiako farmazia: Azkoaga, Ferrerías.

17

**IGANDEA**

- Zinea: Alai: "Oscar, quita las manos" (5-7-9.30)
- Goardiako farmazia: Español, Iturriotz.

18

**ASTELEHENA**

- Zinea: Alai: "Oscar, quita las manos" (7-9.30)
- Erakusketa: Lumaren Idazketa Lehiaketara aurkeztutako lanez osatua. Monterronen, hilaren 23a arte.
- Ikastaroa: IMIn, dBase IIIri buruzkoa, 22ra arte.
- Goardiako farmazia: Corcuera, Musakola.

19

**ASTEARTEA**

- Zinea: Alai: "Oscar, quita las manos" (7-9.30)
- Goardiako farmazia: Irizar, Erguin.

20

**ASTEAZKENA**

- Goardiako farmazia: Amezua, Santamaina.

21

**OSTEGUNA**

- Hitzaldia: "Sexua eta afektibitate bikotean", Julen Arregik emana, arratsaldeko 7etan AEDn.
- AEDko Batzar Orokorra, arratsaldeko 7etan Monterronen.



**Eskubaloia**

- Arrasate Eskubaloi - Urola, larunbatean, Iturrieko kiroldegian arratsaldeko 6etan.

**Saskibaloia**

- Centraljet Euskal Air - Xerox Getxo, larunbatean arratsaldeko 6etan Musakolan. (Gizonezkoak)
- Centraljet Euskal Air - Taldeberri, larunbatean arratsaldeko 8etan Musakolan. (Emakumezkoak)

**Futbitoia**

- Larunbat eta igandean Zaldibarko Txapelketaren barne partidu ugari.

**Futbola**

- Mondra - Real Union, igandean arratsaldeko 3.45etan Atxabalpen.

**Squash-a**

- Larunbatean, eguerdiko hamabietan erakustaldia Musakolako kiroldegian.

## Deialdiak

### • AEDren Batzar Orokorra

Ostegunean, azaroak 21, arratsaldeko 7etan, Monterronen AEDren Batzar Orokorra izango da. Bileran tratatuko diren gaiak honako hauetxek izango dira: "Arrasate komunikabideak-AED" kultur elkar-tearen eraketaren onespina. AEDko estatutuen 5. artikulua-ren aldaketa (aurreko puntuaren ondorioa). AEDko bazkide-kuotaren eguneratzea. Elkar-tearen 1992ko aurrekontuen aurkezpena, eta azkenik, bestetan horrenbeste garrantzi izan ez duen puntua, galdera eta erantzunena, hain zuzen ere. Oraingo honetan, denbora hobeto neurtuz, azken puntu honetan bazkidegoaren parte-hartzea bultzatu nahi da.

### • EAJren batzar berezia

Arrasateko EAJ Uruburu-Batzarrak zera adierazi nahi die bere alderdikideei: astear-tean, azaroak 19, arratsaldeko 7.30etan, Batzokiko aretoan Batzar Berezia izango dela.

## Ikuskizunak

### • Txiste antzetzuen azken saioa

Azaroaren 16an, larunbata, arratsaldeko 4.30etan, Zاراia zineman txiste antzetzuen azken saioa izango da. Azken saio honen girotze-lanak *Fregoli* antzerki-taldearen eskutik joango dira, eta antzetzuko duten obra "Txoronpio eta Pantxi" izango da.



## ARKARAZO JAIETAN

### Herri-kirolen ikuskizuna aipagarri


Aste buru honetan Arkarazoko jaiak izango dira, nahiz eta joan zen asteburuan eta asteartean ere ekintza batzuk izan dituzten. Ostiralean, hilak 15, arratsaldeko 8etan su ziriek in emango diote hasiera asteburuari, ondoren gaueko 10etan *Lutxo* taldearekin dantzaldia izango da. Larunbatean hilak 16, eguerdiko 12etan meza izango da, ondoren trikitilariekin txikiteoa. Arratsaldeko 5etan, eta auzoan antolatzen diren lehenengo aldia da, herri-kirolak: hasteko, Iñaki Perurenak 250 kiloko harria esku batez jasoko du, gero 100 kiloko harri borobila. Bigarren, Saralegi anaiek aizkoran egingo dute enbor etzaneko, zutikako eta eskubakarreko modalitateetan. Gaueko 11etan *Izadi* taldearekin dantzaldia. Bitartean 11.30etan XIII. bolo-txapelketa eta, eguna bukatzeko, txerrikume-harrapaketa. Igandean, goizeko 11etan meza izango dute. Ondoren, goiti-beheren sariketa. Ordubatean, bertsoaioa. 5etan haurren jolasak, eta jaiak bukatzeko, 5etatik 9etara *Maixa eta Itziar* trikitilariekin erromeria.

## Mendia

### • Urto-Arano

Gipuzkoako itzuliaren 5. etapa, igande honetan azaroaren 17an izango da. Egingo den buelta Urtoetik Aranora, 19 kilometrokoa. Irteera, goizeko 8etan, Aretxabaletako Partenoitik eta buelta arratsaldez izango da. Izena eman nahi duten guztiak Arlutzen edo Murruxikoko lokalean ostirala, hilak 15, baino lehen. Bazkideak 800 PTA ordaindu beharko dute eta gainontzekoek 1000 PTA. Ondoren Aranon baba-jana egiteko asmoa dago, baba-jana ez

doa aurretik aipatutako prezioen barne.



## Erakusketa

### • Monterronen erakusketa

Astelehenean, azaroaren 18an hasita eta igandean, azaroaren 24era arte Monterronen *Lumaz idatzitako lehiaketako* 100 lan onenak izango dira erakusgai. Arrasaten, Susana Martinek gazteen sailean lehenengo saria irabazi zuen. Arrasateko Jose Ignacio Morenok, Eskoriatzako Eneko Ugaldek, Elgoibarko Mirian Garciak eta Nere Sierrak diploma bana jaso zuten. Hauetaz gain, Epaimahaiaren eskerronezko plaka Musakolako eskola publikoari eman zioten, bere jarreragatik eta lanen aurkezpen txukunagatik. Sariak azaroaren 18tik aurrera, (Tamayo Papel) Uriarte paperdendan jaso ahal izango dira.

## Meza-orduak

### • Igande eta jaietan

Mezatarra joateko ohitura dutenentzat baliagarri izan daitekela, hona hemen Arrasateko eleiza desberdinetan dauden ordutegiak:

**San Juan Bautista:** 9etan erdaraz, 11etan euskaraz, 12.30etan bietara.

**Uribarr:** 11.30etan euskaraz, 12.30etan bietara.

**Musakola:** 10.30etan erdaraz, 11.30etan euskaraz, 12.30etan erdaraz.

**S.Frantzisko:** 9etan euskaraz, 10etan erdaraz, 11etan euskaraz, 12.30etan erdaraz, 7etan bietara.

**S.Andres:** 10etan erdaraz, 11etan euskaraz, 12etan erdaraz, 13etan erdaraz.

**Sta. Marina:** 12etan erdaraz.

**Kontzezino mojategia:** 10etan bietara.

“ Galdera batzuk M. Carmen Iarrituri

(...) Egia da lantegitik atera behar izan nuela ezkondu nintzanean, estatutuek hala ziotelako. (...) Azkenean Auzo Lagunekin egin nuen topo bost orduz, juxtu!, etxetik kanpo lan egiteko baina, zoritxarrez 24 etxe barruan.

(...) Kooperatiba honetan hiru gizon daudela irakurri behar!: Gerentea, lanpostu honetarako emakumerik ez aurkitzeagatik. (...) Mantenukoa, guk horretarako ere ez dugu balio. (...) Hirugarrena, karga eta deskargakoa.

(...) Nik ez dut inoiz gizon bat fregona batekin ikusi. Zergatik? emakumeon lan espezifikoa ote da? Nik uste dut emakumeontzako den kooperatiba horretan diskriminazioak badaudela.

(...) Eta zer diozu gure itxuraz? zeren eta bisita garrantzitsuak datozenean garbiketako emakumeak ezkutatu behar komun edo trasteroren batean gure ontzi, fregona, erratz eta eskularruekin, jende "garrantzitsuak" ikus ez gaitzan. (...) Gu ez gara zure lan mundukoak, gu zuen kaka garbitzen dugunak gara. Horretarako bakarrik balio dugu? (...) Gauza bat andere, emakumeon enpresa bat egin nahi bada, lortzen da. Baina ez dira egongo beste arrazoi batzuk garbiketak (kasualitate hutsa!) emakumeok egiteko eta jereentzia gizon batek eramateko?"

(R. A.; EGUNKARIA, 1991-XI-7)

“ Arrasate, euskarazko komunikabideen hiriburu bilakatu da. Hainbeste irakurle eta tele-ikusle duen beste herririk ez da. Euskarazko aldizkari bat argitaratu nahi dutenen aitzindari eta eredu da, gainera.

Egun asko ez dela, Frantziako Chanberye-Savoie herrian burutu den herrietako telebisten nazioarteko biltzarrean hartu du parte. Hil honetan "Prensa lokalari buruzko ihardunaldiak" egingo ditu".

(Mikel Atxaga, Deia, 1991-XI-3)

Noiz joango zarete Postetxe berrira?



Lehenengo aipatuko nuke lokal berria egiteko behar handia zegoela. Alde batetik, garai batean Arrasate txikiagoa zen eta korreo gutxiago zegoen moduan, langile gutxiago ere bai. Urteekin Arrasate handitu egin da, baita korreoa eta langileen kopurua ere. Ondorioz, hamasei pertsonak lan egin behar izaten dugun lokala txiki gelditu zaigu.

Bestalde, gaur egun Postetxea dagoen tokia ez da oso egokia kokaera aldetik, eta lokal berria egiteko orduan hobeto kokatuta zegoen leku baten beharra ikusten zen. Oso toki umela dela ere aipatu behar da. Beste arazo bat da kristalak behin eta berriro apurtu dituztela, nahiz eta arazo hori lokal berrian ere izan, zeren zabaldu aurretik eta kristalak blindatuak izan arren, lau bat aldiz apurtu dituzte; eta hori, egiten dituzten pintadak aipatu gabe. Arrazoi guzti hauengatik eta beste hainbat direla medio, lokal berria egin zen eta, nahiz eta maiatzerako bukatuta egon, oraindik zabaltzeke dago. Gauza gehienak toki berrian daude, baina oraindik telexak pasatu gabe daude, kableek lurrazpitik joan behar dutelako. Horrek errepide zulatzea suposatzen du eta leku berrira joatea oztopatu eta atzeratzen du. Dena dela, hiru hilabete barru seguru-erik zabaltzeko prest egongo da, nahiz eta ordurako material guztia ez eduki; baina, orain, hemen dugun materialarekin konpondu beharko dugu.

Jose Luis Zalakain, Bulego-burua.

**GOROSTI**  
Jatetxea

Arimazuri plaza. ARRASATE Tfnoa: 77 06 07

E · S · T · U · D · I · O  
I N T E R I O R I S M O A

- Proiektuak
- Diseinuak
- Obra-Zuzendaritza
- Berrikuntzak
- Erakusleihoen eraketa (Eskaparatismoa)
- Anagramak

Garibai, 3 bis  
ARRASATE  
Tfnoa: 77 01 44





Bere burua intsumisotzat agertzen dutenak geroz eta gehiago dira.

## Soldaduzkarako zozketa

**54 lagun inguruetako koarteletera, 40 kanpokoetara**

Joan den igandean burututako soldaduzkarako zozketan, arrasatearrek zorte desberdina izan zuten. Araudiaren arabera, eta normala denez, gehienei inguruetako koarteletera eta lehorreko armadara joatea tokatu zaie, 54 lagunei hain zuzen. Lehorreko armada utzi gabe, beste 8 arrasatearrek soldaduzka Madril inguruan egin beharko dute, 5ek Kanariar Irletan, 4k Ceutan, 3k Melillan eta bakar batek Balear Irletan.

Itsas Armadara, berriz, 8 arrasatearrek joan beharko dute, guztiak Kantau-

ri itsasoko koartelen batera. Azkenik, Aire-Armadara beste 10 arrasatear joango dira; horietatik bat, Kanariar Irletara.

Soldaduzkarako zozketan Arrasaten 94 lagun sartu zituzten, baina esan behar da zozketa egin aurretik lau lagunek intsumiso-jarrera azaldu zutela Donostiako epailearen aurrean. Azken intsumiso horiek kontuan hartuta, Arrasaten dagoeneko 25 gazte baino gehiago dira soldaduzkaren aurrean, intsumisoaren jarrera hartu dutenak.


### Goio Elkorobarrutia askatuta

Goio Elkorobarrutia gatzagarra, lau urte estatuko gartzela desberdinetan egon ondoren, joan den ostiralean iritsi zen bere jaioterrira. Gartzelan pasatu dituen lau urte horietan, Goio Elkorobarrutia ez dute epaitu ere egin. Joan den ostiralean, hilak 8, berrehun pertsona baino gehiago bildu ziren Gatzagan preso-ohiari ongietorria emateko. Goio Elkorobarrutia iluntzeko 8ak inguruan iritsi zen Gatzagako frontoira, ordurako jende ugari zegoela bertan. Txalo artean, preso-ohiak lore sorta ugari jaso zituen. Ondoren, Gatzagako Alkateak, Eugenio Otxoak, aureskua eskaini zion. Goio Elkorobarrutiari zerbait esan zezan erregutu zion jendea, baina emozio-naturik ezin izan zuen hitzik egin.



### Drogaren aurkako laguntzak

Gaztediaren Mahaiak Drogomenpekotasunen Prebentziorako antolatutako sentsibilizazio-programa aurrera eramateko diru-laguntza onartu zuen Gobernu-Batzordeak, 838.000 PTAKoa hain zuzen.



# EGVZKIGRAF

**Grafikagintza. Tipografia. Offset industrialia**

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

## zeppelin



Loramendi, 3 etxabea  
ARRASATE Tfnoa: 79 74 09

**Carrión  
música, s.a.**

- PIANOAK: Yamaha, Kawai, Rameau, Samick, Astor. (Prezio bereziak)
- MUSIKA-TRESNA ELEKTRONIKOAK: Yamaha, Roland, Korg, Casio, etab.
- EKIPO PROFESIONALAK


M. Iradier, 20 GASTEIZ Tfnoa: (945) 23 07 49

## Alberto Encinas gartzelaratua

Epaileak atxilotzeko agindua eman ondoren eta egun batzuetan ezkutuan egon bada ere, Alberto Encinasek joan den larunbatean bere burua entregatu zuen Ertzaindegian. Albertok bere burua entregatu aurretik, herriko kaleetan zehar manifestaldia burutu zen. Manifestaldia Ertzaindegi aurrera inguratu zenean, Ertzaintzak manifestarien aurka egin zuen. Ondoren, istiluak gertatu ziren manifestari eta Ertzaintzaren artean.

Gogora daitekeenez, martxoaren 1988an, Mikel Lopategi ETAKidea hil eta ondorengo egunetan, hainbat istilu izan ziren Euskal Herrian eta bai Arrasaten ere. Istiluak gertatu eta aste betera, Ertzaintzak Alberto Encinas atxilotu zuen. Gertatutako istiluetan bi ertzain kolpatzeaz salatu zuten. Epaiketa, 1989ko ekainean egin zen eta ezarritako zigorra, gartzelan zazpi hilabeteko egonaldia izan zen. Horrelako gartzela-zigortxikiak normalean baldintzapeko askatasunarekin betetzen direnez, Alberto Encinasek garai hartan ez zuen epailearen erabakia errekurritu.

Orain, ordea, gartzelara joan behar izan du.




# Txandaka

## ARRASATE ETA PSIKIATRIA

**M**ondragoen jaio edo bizi den edozeinek daki herriaren izen hau psikiatriarekin lotzen dela; sarritan solaskideak keinu edo irribarretxoren bat egiten du, eta batzuetan argi eta garbi esango dizu «zuek, zoroetxekook». Garbi dago, beraz, erlazioa.

«Arrasate» esanez gero, badirudi moldeak apurtu egiten direla, eta alta lortzen dela, sendatu garelako ez bada ere, solaskideen erreflexu-faltagatik gutxienez.

Lotura honek beti pentsarazten du ea benetako zerbait ote dagoen hainbeste insistentziaren atzean. Lehen momentuan, behintzat, ezetz pentsa daiteke eta, hausnarketa gehiago egin ondoren, ez da garbi nabaritzen gure buru-osasunarentzat arriskutsu diren gaitzak eta antzerako egoera sozio-politiko-laboralean dauden beste batzuenak ezberdinak direnik.



(\*) Justo Alzua

Baina zerbait ezberdina, egon badago, eta haxe litzateke: gaixo mentala onartzen da, baina gaixotasun mentala ukatu egiten da. Historiaz, ia mende bateko historiaz, gaixo mentala herriko bizitzaren alderdi normalizat hartu eta onartu izan da.

Baina gaixotasun mentala, lehen aipatzen nuen horien jarreragatik, ez da onartzen. Arrasateko biztanleei gehiago kostatzen zaie onartzea arrisku horretarako ez gaudela txertatuta, eta zerbait oker dabilela susmatzean, hurbiltasunaren erosotasuna baztertu eta beren *zirkuituak* aztertzeraz hemendik kanpora joaten dira («Inork pentsa ez dezan...»)

Honetan bai, badago alderik beste herri batzuekiko, «nerbioetatik» gaixotzeko posibilitatea ezkututzen saiatzen gara. Ez dute ontzat ematen Sta. Agedan bulegoak bakarrik daudelako salakuntza...

(\*) Aita Meni Ospitaleko Psikiatra  
(Erredakzioan itzulita)



**ERRASTI KRISTALDEGIA**  
**Plastiko eta burdinazko hodiak**  
**beirina eta kristalak**  
**akzesorioak**

Olarte kalea, 47 behea. Tfnoak: 79 22 55 / 79 14 25

**J. M. Heriz**

Konpromezurik gabeko  
aurrekontuak

Otalora Lizentziatua. Arrasate



Eguneko Ospitalea Uribe Auzoan kokatuta dago

## Eguneko Ospitalearen inaugurazioa

### Euskal Herriko 3. Adinekoen lehen Antzerki-ihardunaldiak

Azaroaren 18an, astelehena, goizeko 10etan, Uribe Auzoan kokatua da goen Eguneko Ospitalearen inaugurapen-ekitaldia egingo da. Bertara, Udal-ordezkariek, erakunde psikiatrikoen ordezkariek, Osakidetzako buru-osasuneko zuzendariak eta Azkuna jauna, Eusko Jaurlaritzako Osasun-Sailburua etorriko dira.

Eguneko Ospitalea Irailean hasi zen lanean eta goizeko bederatzietatik eguerdiko ordubiak arte egoten da zabalik. Ospitalea arazo mentalak dituztenentzat da, hau da, Santa Agedan sartzeko besteko larritasunik izan gabe ambulategiko tratamendua baino zerbait gehiago behar dutenentzat. Eguneko Ospitalaren helburua hogei pertsonako talde bat sortu eta beraiekin hainbat ekintza lantzea da; horretarako sendagile bat, hiru psikologo, gizarte-laguntzaile bat eta monitore bat arituko dira lanean. Ospitale hau publikoa da,

bertako finantzaketa Osakidetzaren kontura doa, beraz, zerbitzua dohainekoa da. Bertan parte hartu nahi izanez gero, Arrasateko Osasun Mentaleko Zentruan eman behar da izena.

Bestalde, Aita Menni Ospitalak egindako lanaren ondorioz ere, Euskal Herriko Hirugarren Adinekoen lehen Antzerki-ihardunaldiak antolatu dira. Antzerki-ihardunaldien helburuak bi izango lirake: bata barrura begira; langile eta gaixoen parte hartzea lortzea; bestea, kanpora begira, inguruarekin lotura handiagoa ezartzea, nolabait ere Ospitalean dauden pertsonetik irudi ezkorra apurtzeko.

Aita Menni Ospitaleko Antzerki-ihardunaldiei hilaren 25ean emango zaie hasiera, abenduaren lehen egunean bukatzeko. Guztira, zortzi lan antzetzuko dira, horien artean "Baserritarrak" lana, Aita Menni Ospitaleko *Alaitasuna* taldeak egina.

## Usteak uste

**N**ola esan, harrigarria, kezkarria, gogorra, arduragabekeria... gure bailarako bati gertatu zaiona, hau da, lau urte giltzapean egotea susmagarria izateagatik; izan ere ez dute epaitu, eta epaitu ez dutenez ez da ezer erabaki, eta ezer erabaki ez denez susmagarria besterik ez da.

Beti entzun dugu Justizia arloak ez duela oso ondo funtzionatzen, aparatu astuna dela eta, beraz, oso poliki mugitzen dela. Entzun izan dugu ere, ez dagoela behar adina pertsonal esku artean dituzten arazo/auzi edo dena delakoei dagokien epean erantzun bat eman ahal izateko.

Baina honako hau gehiegitxo iruditzen zait. Lau urte (1.460 egun) ez al dira nahiko behar diren urratsak eman eta epaiketa burutzeko? Hori baino gehiago behar al da?

Norbaitek esan dezake gainera, agian epaitua izan balitz, ezarri zekioken zigorra hori baino gogorragoa izan zitekeela, baina ikusi besterik ez daukagu zigor gogorrek jasotzen dituztenei askoz ere lehenago egiten zaiela epaiketa. Eta nire galdera da, nork itzuliko dizkio gazte honi lau urte horiek? Eta zenbat horrelako ematen dira?

Azkenaldian dena Europan egindakoarekin konparatzen edo neurtzen da. Baina kasu askotan, ez al da egokiago askoz herrialde atzeratuagoekin konparatzea? (Gertatutakoa ikusirik, agian galtzen aterako ginatke).

AMAIA JAUREGI-ARRABURU

**LEARAN**

**MARKO-JARTZEAK • LAMINAK • MARGOAK**  
Biteri Etorbidea, 11 ARRASATE



**SAMEGO  
GARBIKETAK**

Uriburua, 24  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 70 39




**Kanaria  
irletara bi  
lagunentzako  
bidaia.**


**Renault Clio 1.1 CL (F. F.)**

# Sari paregabeak!

Beheko sei denda horietakoren batean erosketak egitean, bi sari bikain hauek zeureganatzeko aukera izango duzu, urtarrilaren 14ean ARRASATE PRESSen egingo den zozketan parte hartuz.



Iturriotz kalea, 8 ARRASATE  
Tfnoa: 77 04 01




Otalora, 25 ARRASATE  
Tfnoa: 77 13 20



Maalako Errabala, 5 ARRASATE  
Tfnoa: 79 19 25

# Fototrunkoa



Aste honetako  
irabazlea:  
**BEÑAT UNZUETA**

Argazkikoa nor den esanez, bidali  
beheko txartela ARRASATE PRESSera  
(Azoka kalea, 1) eta aste honetan  
ZUBIAGA etxeak emango duen opariaren  
zozketan sartuko zara.

## ERANTZUNA

**Nor da aste honetako  
pertsonaia?**

Izena: .....


Abizena: .....

Helbidea: .....

Herria: .....

Tfnoa: .....

Jose Antonio Altuna "Txatillo" zen joan den asteko pertsonaia.



**KATAIDE**

Kataide Poligonoa. ARRASATE  
Tfnoa: 79 60 10



Maala Errabala, 13 ARRASATE  
Tfnoa: 79 92 76




**J. Markiegi**

**JANTZIDENDA**

Olarte, 2 ARRASATE  
Tfnoa: 79 15 32

**Eguzkik Arartekoarengana jo du**  
Urkuluko uraren fluoreztatzea dela eta, bere garaian Eguzkik Aretxabaleta, Arrasate eta Bergarako Udaletan mozioak aurkeztu zituen. Aurkeztutako mozioak ez ziren onartu, baina Diputazioari gai honi buruzko informazio eskatzeko konpromezua hartu zuten hiru Udalek. Sei hilabete pasa eta gero, Diputazioak ez du inolako erantzunik eman. Gainera, fluoreztatzea egingo duen makina jartzeko obrak laster hasiko dira. Erantzun-ezagatik eta Urkuluko ura fluoreztatzen laster has daitezke-elako, Eguzkik Arartekoarengana jo du orain, obrak geleraz ditzan, beraien ustez ura fluoreztatzea osasunerako kaltegarria izan baitaiteke.



Bergaran eskualde-mailako manifestaldia burutuko da gaur

## Depurazio-sistema berria piszinetan

### *Klimatizazio-sisteman ere aldaketak egin dira*

Musakolako igerilekuan, uraren arazketa edo depurazio-sistema hobetzeko, obretan dabilza aspaldi honetan. Lehenengo, barruko piszinetako obrak izan ziren, eta orain kanpokoetakoak. Arazketa-sistema hobetzeko, gutxi gorabehera 150 milioiko aurrekontua erabili da.

Barruko piszinaan ezarri den depurazio-sistemak filtroen bitartez funtzionatzen du, hare mota desberdinak erabiliz. Obrak egin aurretik, jendea oinutsik ibiltzen zen tokiko ura berriro

ere piszinarara joaten zen. Obrak egin eta gero, jendea oinutsik ibiltzen den toki horretako ura bestaldera joateko moduan utzi dute, berriz piszinarara joan gabe. Kanpoko piszinetan, barruan egindako gauza bera egiteko asmoa dago eta uda aurretik bukatzekoa, noski.

Igerilekuarekin zerikusi zuzenik ez badu ere, aipagarria da kiroldegiko klimatizazio-sisteman ere aldaketak egin direla, areto guztiak hobeto berotu ahal izateko. Lan hauek 40 milioi PTako aurrekontua izan dute.

### **Bidegorria Arrasaten**

Gipuzkoako Foru-Aldundiak, Mugarritte inguruan txirrituan ibiltzeko bidegorria egitea onartu du. Proiektu horren arabera, bizikletan ibiltzeko bidegorriak bi metro t'erdiko zabalera izango du eta bailarako bidearen albo batean egingo da, Aretxabaleta-Arrasate norabidean, hain zuzen ere.

### **Ikastoletan grebarik ez**

Euskal Herriko gainontzeko ikastola gehienetan joan den asteazkenean ordubeteko greba egin bazuten ere, Arrasaten ez zen horrelakorik gertatu. Izan ere, Umezaintza, San Viator eta San Frantzisko Xabierren lana normaltasunez egin zuten.

# FAGOR



**TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA**

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

# beatriz

oinetakoak eta  
poltsak

Erdiko kale, 11

Tfnoa: 79 14 3 ARRASATE

# LEKIN

lleapaindegi mistoa

Erguin, 15 etxebehea.

Tfnoa: 79 80 23 ARRASATE

*Izen*  
**PROPIOAK**

● **Enrike Kabiketa**, 40 urtekoa, Arrasaten jaioa eta *Union Cerrajera*-ko langilea. Joan den igandean, azaroak 10, Behobia-Donostia lasterketan partaide guztien artean hogei-talagarren eta beteranoetan lehenengo amaitu zuen.

● **Elisabet Arregi** eta **Iñaki Alonso**, San Viatorreko ikasleak. Arrasaten, San Andres auzoko zarataren neurketa egiten ari dira. Neurketa hauek eguneko eta gaueko ordu desberdinetan egingo dituzte, bi aldiz astean zehar. Bikote hau "Bizigiro-Osasun" moduluan ari da ikasten.

● **Jose Luis Lizarbe**, ordiziarra, 33 urtekoa. Eskola Politeknikoan Injinerutza Teknikoko ikasketak egin zituen, eta EUTGn Enpresa-Zuzendaritzari buruzko masterra. *Fagor Industrialeko* zuzendari industrial izendatu dute.



Biona tabernan, azaroaren 11an, **V. partxis-txapelketa**ri eman zioten hasiera. 40 bikotek parte hartzen dute, bakoitzak 1500 PTA ordaindu ditutelarik. Partidak iluntzean jokutzen dituzte eta finala Gabon ostean izango da.



Gure *Fototrukoaren* lehen irabazlea **Idurre**

**Amozarrain** izan zen.

Gehienek moduan, pertsonaia ez hain ezkutua Joxe Aranzabal zela asmatu zuen Idurrek. Hori bai, huts egin zuenik ere izan zen; esaterako, batek Tasio Erkiziarekin nahastu zuen. ▶

**LASAGABASTER**

**JANTZIDENDA**

*Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabalena*

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



Azoka kaleko **espaloia kotxez beteta** egoten da bai arratsaldean eta bai goizean, baina kotxe eta kamioi gehien egoten den eguna asteazkena izaten da, azoka-eguna delako eta inguru honetan ez bait dago aparkaleku askorik horrenbeste kotxeendako. Dena dela, espaloia pertsonentzat da, eta errepidea kotxeentzat.



Foto Imagen


◀ **Sera Sanchez** eta **Timo Cabeza** joan zen maiatzaren 11an ezkondu ziren. Dagoeneko eguneroko lanari ekingo zioten. Aurrerantzean, mila zorion!




◀ **San Franzisko Xabier**

Ikastolako OHOk 4. mailako ikasle irakasleak Lodosan egonaldi bat egin zuten, nekazaritza dagozkion ekintza eta langintza ezberdinak

ezagutzeko.



▲ Pasa den astertean Pleno-Aretoa, **Larrea Etxebizitzetako buruzko bilera** izan zen. Bertan Xabier Zubizarreta, alkatea; Jose M<sup>a</sup>. Loiti; Juan Antonio Urdangarin, Hirigintzako teknikaria; Proginsa-ko bi eta proiektu berria egin zuten bi arkitektoak izan ziren azalpenak eman zituztenak. Etxeak nola ordaindu beharko diren azaldu zuten eta obrak otsailean hasi eta bi urtetara amaituko direla.



**TAXUTU TALDEA**

Orientazio pedagogiko eta profesionala

- Ikasketei buruzko informazioa
- Ebaluazio psikologiko indibidualak
- Ikas-teknikak
- Talde-dinamikak
- Enplegua bilatzeko gaikuntza

San Migel enparantza, 4 LEINTZ GATZAGA Tfnoa: 79 22 89



Errekabarren, 20  
ARETXABAETA Tfnoa: 79 80 90

**FELIPE  
MADINA  
ZURAK**

Zarugalde, 40 Arrasate 79 13 78





# Euritik eguzkira

Askotan eguraldiak  
zer esan handia  
izaten du partiduen  
martxan. Batzuek  
euriaz eta lurra  
bustita dagoenean  
gustora jokatzeko  
duten moduan,  
beste batzuek  
eguzkipean  
jokatzea nahiago.  
Joan den astean,  
alde ederra  
larunbatean edo  
igandean jokatu.



DEBA  
GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZ AGENZIA

ITURRIOTZ, 23 etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 13 02 Faxa: 77 14 27

*Eurikit* S.L.

Otalora, 25 ARRASATE Tfnoa: 77 13 20 Faxa: 77 13 20

- Soinua
- Bideoa
- TB
- Komunikazioa



# Zaldibarko Futbito-txapelketa

## A taldea

	Partiduak				Golak		Punt. guzt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Fosforos	5	5	0	0	22	9	10
A. Kristaldegia	5	4	0	1	20	9	8
Adobe	5	4	0	1	23	19	8
Akeitegi Express	5	3	1	1	47	15	7
G. P. Noski	5	3	1	1	21	10	7
Kriskibalda	5	3	1	1	24	15	7
Los Manchas	5	3	0	2	39	21	6
Los Heredia	5	3	0	2	29	14	6
Tronkoteak	5	3	0	2	25	21	6
Zulu's	5	3	0	2	23	21	6
Jubilatus	5	2	2	1	26	28	6
Neanthertal's	5	2	0	3	20	15	4
Uglys	5	2	0	3	13	9	4
S. Ind. Ugarte	5	1	1	3	14	21	3
Koxkas	5	0	1	4	17	28	1
Expert	5	0	1	4	11	51	1
T. San Josepe	5	0	0	5	12	30	0
B. D. L	5	0	0	5	3	43	0
<b>Total</b>	<b>90</b>	<b>41</b>	<b>8</b>	<b>41</b>	<b>389</b>	<b>389</b>	<b>90</b>

## B taldea

	Partiduak				Golak		Punt. guzt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Los Motz	5	5	0	0	37	7	10
La Banda	5	4	1	0	21	7	9
Navarros	5	4	0	1	24	7	8
Danok Lagun	5	3	1	1	21	13	7
Potroak Lorat.	5	3	1	1	20	13	7
Fasprint	5	2	3	0	19	12	7
Jo ta Akabau	5	3	0	2	26	17	6
Sibilus Rover	5	2	2	1	14	13	6
Ganbelas	5	2	1	2	14	19	5
Anbotoste K. T.	5	2	1	2	13	19	5
Totxus	5	2	0	3	25	12	4
Gau Azkenak	5	2	0	3	16	15	4
Txintxes Osorik	5	1	1	3	8	15	3
Inter de Alimaña	5	1	1	3	10	22	3
Bukanak	5	1	1	3	10	27	3
Maria del Monte	5	1	0	4	5	28	2
M. K. A.	5	0	1	4	10	31	1
Oleeel	5	0	0	5	6	22	0
<b>Total</b>	<b>90</b>	<b>38</b>	<b>14</b>	<b>38</b>	<b>299</b>	<b>299</b>	<b>90</b>

## C taldea

	Partiduak				Golak		Punt. guzt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Gnu. Seg. Bilbao	5	4	1	0	19	3	9
New Laso Arregi	5	4	1	0	19	7	9
Adelaida	5	4	0	1	29	8	8
Diego Antonio	5	3	2	0	19	15	8
AEK	5	3	1	1	15	13	7
Bar Kajoi	5	3	0	2	28	14	6
Argi Ibili Mapfre	5	3	0	2	17	13	6
Txokeros	5	3	2	2	16	12	6
ATB	5	2	3	1	19	17	6
Taberna Mont.	5	1	1	1	15	16	5
Alaves	5	2	0	2	13	19	5
Aizpun Bila	5	2	1	3	18	22	4
Arrasate Press	5	1	1	3	10	13	3
Aurrera bolie!	5	1	1	3	10	17	3
Shaktale	5	1	1	3	13	21	3
Sokoakoak	5	0	1	4	13	24	1
Bayer de Lenitz	5	0	1	4	7	32	1
Whiskeria Linde	5	0	0	5	11	25	0
<b>Total</b>	<b>90</b>	<b>37</b>	<b>16</b>	<b>37</b>	<b>291</b>	<b>291</b>	<b>90</b>


## D taldea

	Partiduak				Golak		Punt. guzt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Artzankos Udal.	5	5	0	0	23	7	10
Notxingan Flo.	5	4	1	0	23	11	9
Arrasate Kirolak	5	4	1	0	21	8	9
Camerun's Trikiti	5	3	2	0	24	11	8
Bar Artano	5	3	1	1	19	12	7
V. C. Daglas	5	3	0	2	31	6	6
Bizkorak	5	3	0	2	18	11	6
Pepelus	5	3	0	2	17	12	6
Hirei	5	3	0	2	14	13	6
Arrasate Comer.	5	2	1	2	8	11	5
Ezkinako hontza	5	2	0	3	12	23	4
Nagixak	5	1	1	3	8	19	3
Ghana	5	1	0	4	14	16	2
Kakajauri	5	1	0	4	8	16	2
Resakas	5	1	0	4	11	19	2
Balaike	5	1	0	4	5	25	2
Atxanta ke te...	5	1	0	4	11	32	2
Sukumurus	5	0	1	4	6	21	1
<b>Total</b>	<b>90</b>	<b>41</b>	<b>8</b>	<b>41</b>	<b>273</b>	<b>273</b>	<b>90</b>

# JMA VMA



Askotan nahaste izugarria ematen da. Non ote da baloia? Bapatean, errebote baten ondorioz, kontrako aldera doa eta alde batera egindako ahalegin guztiak beste alderantz egin behar. Lehenik gorputza geldierazi eta burua jiratu.



## LASO ARREGI argazkidenda

Alfontso Jakintsua Plaza, 3  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 12 75

### EMAITZAK

#### Zaldibar

M. K. A. 2 .....	Totxus 15
Ganbelas 3 .....	Jo ta akabau 9
Sibilus Rover 3 .....	Fas Print 3
Los Motz 6 .....	Potroak Lorategi 2

#### Zaldibar

Maria del Monte 0 .....	Navarros 8
Danok Lagun 2 .....	Gau azkenak 1
Txintxes Osorik 3 .....	Oleel 1
Tronkoteak 7 .....	Uglys 2

Zortzi partidu besterik ez ziren jokatu joan den asteburuan Zaldibarko Futbito Txapelketaren barruan. Partidu horiek aurretik jokatu beharrekoak ziren, baina bertan behera utzi zirenez, berriro normaltasunetik abiatzeko ahalegina izan zen joan den astekoa. Partidu horiek ezer gutxi argitu zuten, talde guztiak partidu-kopuru bera jokatuta izateko bakarrik balio izan zuten.

Dena dela, aipagarririk badago, esate baterako *Maria del Monteri*, *Navarros* taldeak sartu zizkion 15 golak edo eta *Ganbelas* taldeak puntu bat gutxiago izango duela zegokionean ez arbitrazteagatik.



José Luis Albuin

**Kiromasajea**

**Akupuntura**

**Kontsulta  
naturista**

San Josepe, 10 etxabea.  
ARRASATE Tfnoa: 77 01 33

Arrasateko Kiroldegia: 79 04 27

## ITURRIOTZ

### TABERNA



GIRORIK  
JATORRENA !!  
Tfnoa: 79 16 04

# Eskiña taberna

Olarte, 25 ARRASATE  
Tfnoa: 79 0220



## Txutak

Denak berdin

Talde guztiek partidu-kopuru bera jokatu dutenez, sailkapenari begirada bat eman diezaiogegu, bost partidu jokatu ondoren gauzak nola doazen jakiteko.

A taldean, Fosforos taldea dago lidergoan, orain arte jokaturako bost partiduak irabazi ondoren; beraren atzetik, Arrasate Kristaldegia eta Adobe taldeak dira oraingoz indartsuen ageri direnak. Sailkapeneko azken postuei begiraturaz gero, argi dago Talleres San Josepe eta BDL taldeak motelenak direla, oraindik puntu bakar bat ere ez bait dute lortu.

B taldeko liderrak ere, Los Motz taldeak, orain arte partidu guztiak

irabazi ditu. Bigarrena La Banda da eta hirugarrena Navarros taldea. Liderrak ezik, beste biek gol gutxi egin dituzte, baina jaso ere oso gutxi, zazpina. Sailkapeneko azken postuan, Oleee!! taldea dago, oraindik puntu guztiak toreatu dituen taldea, hain zuzen.

C taldean ez dago lider argirik, lehen bi postuetan dauden Gnu. Seg. Bilbao eta New Laso Arregi taldeek lau partidu irabazi eta bat berdindu bait dute. Bi horien atzetik, iazko txapelduna Adelaida eta Diego Antonio. Whiskeria Linde, sailkapeneko azken postuan, punturik gabe dago. Azkenik, D taldean Artzankos Udalaitez taldeak agintzen du, ondoren Notxingan Florest eta Arrasate Kirolak dituelarik. Atzekaldean gauzak estu daude, Sukumurus puntu batekin azkena izanda ere, beste bost talde bi punturekin daudelako.

### DATORREN ASTEBURUAN

#### A taldea

Tronkoteak .....	Akaitegi Expres
Los Heredia .....	Sum. Ind. Ugarte
Koxkas .....	Los Manchas
Jubilatus .....	Arrasate Kristaldegia
Talleres SanJosepe .....	Fosforos
Adobe .....	B. D. L.
G. P. Noski .....	Zulu's
Uglys .....	Kriskibalda
Expert .....	Neanthertal's

#### B taldea

Los Motz .....	Maria del Monte
Potroak Lorategi .....	Sibilus Rover
Bukanak .....	Oleee!
Ariboste K. T. ....	Ganbelas
Inter de Alimañas .....	Fasprint
M. K. A. ....	Jo ta Akabau
Danok Lagun .....	Navarros
Gau Azkenak .....	Totus
Txintxes Osorik .....	La Banda

#### C taldea

Diego Antonio .....	Gnu Seg. Bilbao
Aizpun Bila .....	Bar Kajoi
Sokoakoak .....	Adelaida
New Laso Arregi .....	Alaves
Aurrera Bolie! .....	AEK
Txokeros .....	Argi Ibilii Mapfre
Monterrey taberna .....	Bayer de Leintz
Shaktale .....	ATB
Whiskeria Linde .....	Arrasate Press


#### D taldea

Nagixak .....	Ghana
Pepelus .....	Cameruns Trikiti
Sukumurus Anboto .....	Resakas
Artzankos Udalaitez .....	Ezkinako Hontzak
Atranta ke te merece .....	Kakajauri
Bar Artano .....	Hirei
Arrasate Kirolak .....	Notxingan Florest
Bizkorak .....	Video Club Daglas
Arrasate Comercial .....	Balake

• **Arimazuri** •  
**dastapenak**

**ZABALIK GOIZEKO**  
**SETATIK**

Arimazuri plaza / Loramendi, 6  
ARRASATE Tfnoa: 79 80 44



## EGIDO

Automobilarentzako  
ordezko piezak

Legarte Pabilioa, ARRASATE Tfnoa: 79 82 11


### JANTZI ZAITEZ AIROSO

Gaurtik aurrera  
zuretzat  
**DRAFT CENTER**

ARRASATE  
Otalora, 21  
Tfnoa: 79 48 31



Legend & Tradition



## ETXEBESTE


- Euritakoen konponketa eta salmenta
- Ganibeta eta labanen salmenta eta zorrozketa



Ferrerias, 25 etxabea ARRASATE

Gorka Knör

# Komunikabideetako munduan lanean



**G**orka Knör abeslaria Tarragonan jaio zen duela 41 urte, eta Donostian enpresa-tekniken ikasketak egin zituen. Bere bizitzan toki askotan lan egin du, esate baterako Eusko Jaurlaritzako lehendakari-tzaren bozeramalea izan zen. Ondoren, Lagun Aroko zuzendaritza-taldekoko eta gaur egun enpresa berean erakunde eta nazioarteko sailaren burua. *Egunkaria*-ren Editorialeko partaidea eta EITBko Administrazio-Batzordekoa ere bada.

— Zuk zeuk kantatzeaz gain, idatzi ere idatzi izan duzu, ezta?

— Euskaraz idazten, gauri bateko Zeruko Argian hasi nintzen, 1971. urtean. Geroztik hainbat tokitan idatzi izan dut, Deian sartu nintzeanean euskarazko kazetari-taldean hasi nintzen. Kolaborazio asko bai, baina lan-lan, ez dut egin.

— Gobernuan lanean ibili zinen; oroitzapen onak?

— Era guztietakoak, onak eta txarrak. Oso lan neketsua izan zen; izan dudan lanik eskasena soldata aldetik, sartzen nituen ordu guztien-dako ez pentsa soldata handia nuenik. Baina oso aberasgarria komunikazio-munduarekin harreman asko izan nituelako. Gero, 1984. urtean bizi izan genuen krisia oso gogorra eta desatsegina izan zen. Beste alde negatibo bat ere badago nire ustez, politikariek gero eta gehiago pentsatzen dute beraiek bakarrik daudela gizartean eta beste politikariek esaten dutenari bakarrik begira bizi dira.

— Herri-prentsez Arrasaten izango diren Ihardunaldiak antolatzeko Batzordeburua zara, ezta?

— Nik ez nuke esango ezer antolatu dudunik; Ihardunaldi hauek posible badira, Arrasate Presse herri-mailan lortu duen oihartzunari esker da, AED inguruan lan egiten duten taldeei esker, eta hirugarren eta garrantzitsuena Arrasateko Udalak eraman duen politikari esker. Ihardunaldiak posible izan daitezen erakunde ezberdinek eman duten laguntza ere aipatuko nuke. Ni aukeratu baninduten Arrasaten Lagun-Aron lan egin eta Arrasate Press-ekin nola edo

hala harremanak izan ditudalako izan da.

— Zer da zuretzat herri-prentsa?

— Oso beharrezkotzat jotzen dut, batez ere euskarazko herri-prentsa; uste dut euskararen alde serioa izan egitea nahi badugu, prentsa lokalak baduela bere esparru berezia, alde askotatik begiratuta; esate baterako tokian tokiko hizkuntzaren berezitasunak lantzeko aukera ematen du.

— Zu EITBko Kontseilukoa izan zara. Badute zer

ikusirik bi mundu horiek, EITBk adibidez eta herri-prentsak?

— Pentsatu nahi nuke baietz. Nire iduriz badago Euskal Herrian kaleratu beharko genukeen beste eztabaida bat; kontuan hartu behar da Euskal Herria ez dela nazio libre bat; horregatik uste dut neurri berezi batzuk hartu beharko lirakeela. Nolakoak? Ez dut uste EITB moduko estruktura handiak bakarrik behar direnik; uste dut mundu hori lotu egin behar dugula nola edo hala herri-berriak bertatik datorren beste mugimendu horrekin, irrati libre eta prentsa lokalarenekin alegia.

— Araban herri-prentsarik badago?

— Bada zerbait, baina oso gutxi; nik dakidanez Aiara eskualdean badago, gehiagorik ez; baina uste dut Gasteiz batek beharko lukeela horrelako zerbait. Arrasaten, Bergaran edo Beran egiten diren modukoak ez daude, behintzat.

— Zein ondorio ateratzea nahiko zenuke Ihardunaldi hauetatik?

— Xederik nagusia, izan diren esperientzien berri ematea da, baina ez berriemate soila, baizik eta herri-prentsa sakon ezagutzea: zer teknologia erabiltzen den, zer zabalkunde izan duten... eta atera daitezela ondorio on edo praktikoak ere. Euskal Herrian beste zenbait herri edo eskualdetako jendeak nahi izanez gero hone-lako proiekturen bat egitea, ezagut ditzatela nola egin ditzuten beste batzuek. Izan dezatela bidea hori aurrera eramateko, eta ez orain arte moduan, leku askotan boluntarismo hutsez egin bait da. Hauek izango lirake atera litezkeen ondorio nabarmenenak.

— **“Euskarazko herri-prentsa beharrezkotzat jotzen dut”**

# Lantegi-Eskola: gazte langabeen irtenbidea

*Orain hiru urte, langabe zeuden gazteei irtenbideren bat eman asmoz, Mankomunitateak Lantegi-Eskola jarri zuen martxan. Denbora honetan, bataz beste, 374 lagunek hartu dute parte antolatutako programan. Orain hiru urte hasi zen egitasmoari ez zaio jarraipen argirik ikusten datorren urterako eta dagoeneko 797 lagunek eman dute izena eskolara joateko.*

**L**antegi-Eskolan ematen den prestakuntza-motak, pertsonari gizartean eta lan-munduan sartzeko erraztasunak ematea dauka helburutzat. Mankomunitateak antolatutako programan, hiru motatako ikasketak egin daitezke: Lanbide-Hastapenak, Lanerako Prestakuntza eta Lantegi-Eskola.

## Lanbide-Hastapenak

**L**anbide-Hastapenetako ikastaroen urtebeteko iraupena dute, ikasketak utzi dituzten 16 eta 17 urteko gazteei zuzenduta daudelarik. Gazteentzako ikastaro hauen helburua, gazte horiei lanbide konkretuan abiaraztea eta oinarrizko heziketa ematea. Orain artean, sukaldaritza, jantzigintza, igeltsaritza eta arozigintza landu dira.

## Lanerako Prestakuntza


**L**anerako Prestakuntzako ikastaroen irau-

pena 5-12 hilabetekoa izaten da bataz beste, 18 urte baino gehiago dituzten langabe-tuentzat. Helburu nagusia,

prestakuntza espezializatua ematea da, eta zuzen-zuzenean bideratua dago ikasleak bere enplegu-gaitasuna mantendu, gehitu edo hobetzera. Eskaini diren espezialitateen zerrenda honako hau da: Teknika Soziolaboralak, Ahate-hazkuntza, Larrutarako animalien hazkuntza, Sukaldaritza eta gozogintza, Jantzigintza eta Diseinua, Muntaiak Elektromekanikoak, Giroitze edo klimatizazio-sistemak, Arozigintza eta tarimak, Jariakin eta gas-instalazioak, Aluminio eta PVCko arozigintza eta Enkofratua eta ferraila.

## Lantegi-Eskola

**A**zkenik, Lantegi-Eskolako ikastaroen, lanerako prestakuntzako hiru urteko programa bereziak dira. Programa hau, 18 eta 25 urte arteko langabetuei zuzentzen zaie, eraikuntza, eraikinen berregokitze eta ingurugiroari buruzko lanbideetan kualifikatzeko. Prestakuntza-mota berezia da, eskolan bertan ematen denaz gain,




Bergarako Gartzela zaharra eraberritzen ari dira Lantegi-Eskolako irakasle eta ikasleak.

monitoreekin batera eta kanpoko laguntza barik, zerbait eraberritzeko helburua bait dauka. Hiru urte hauetan eraberritzen ari direna, oraindik ez dute bukatu eta Bergarako gartzela zaharra da. Ikastaro honetan parte hartzen dutenek, hileroko 33.000 PTA jasotzen dituzte. Beraz, normala da gehienek Lantegi-Eskolako prestakuntza berezietan hasi nahi izatea.

**Aurrera begira, zer?**

**S**arreran esan bezala 374 pertsona izan dira, Mankomunitateak antolatutako ikastaro desberdinetan parte hartu dutenak. Datorren urterako 797 pertsona prest azaldu dira ikastaro horietan parte hartzeko. Lantegi-Eskolak izango du gaitasunik guzti horiei erantzunen bat



Lantegi-Eskolako jardina ere, ikasleek egokitu dute.

eman ahal izateko?

Orain dagoen moduan ez, noski. Mankomunitateak enplegura zuzendutako prestakuntza-programei hasiera eman zienetik, hiru urte

pasa dira eta esan daiteke orain artean behin-behinekotasunez funtzionatu dela. Lantegi-Eskolako etxea, bertako ikasleek eraberritua, ez da Mankomunitatearena,

alokatuta dago eta. Alokairuaren epea abenduan bukatzen da eta oraingoz ez zaio irtenbiderik aurkitu.

Kontuan hartuta datorren urterako ikastaroetan hasteko prest daudenak 797 pertsona izango liratekeela, alokairuaren arazoa konpontzeak ere ez dirudi irteerarik eskaini dezaiokeenik hain eskakizun handiari. Lantegi-Eskolak gaur egun ez du gaitasunik bere baitan hainbeste jende hartzeko. Prestakuntza-programak aurrera eraman nahi badira behintzat, argi dago eskolako egitura sendotzea behar-beharrezkoa dela. Zentzu honetan, Sabin Martiartu Lantegi-Eskolako zuzendariaren nahia oraingo erakuntzaren ondoan dagoen lur-eremua eskuratzea litzateke. *“Beste eraikuntza batzuk eraberritzen hasi beharrean, eskola ondoan dagoen lur-eremua erosi eta guk geuk eraiki beharko genuke geure eskola; oso polita litzateke hori egin ahal izatea. Orain daukagun egiturarekin, lokal txikiak han-hemenka, ezin diegu erantzun datorren urtean guregana etorri nahiko luketen guztiei. Egitura sendoa behar da horretarako, nire amets hori gauzatuko balitz ere, erdiak inguru kanpoan geldituko lirateke”.*

Beste hainbat kasutan bezala, onerako edo txarretarako, Lantegi-Eskolako etorkizunaren erabakia politikoen esku dago.

## Eskolatik lanera

**J**ose Mari Ugalde aretxabaletarra duela urte t'erdi hasi zen Lantegi-Eskolan arotzeriako ikastaroak egiten. Orain, egun erdiz Arrasateko aroztegi batean ari da lanean eta beste egun erdia Bergarako Gartzela eraberritzen ematen du.

Lantegi-Eskolako ikastaroek lana aurkitzeko balio izan diote, baina hala ere berak beste modu batera antolatuko lituzke. *“Nire ustez, Bergarako Gartzela epe barruan bukatu beharrak asko baldintzatu du ikastaroa. Gauza zaharrak eraberritzen ikasi dugu, baina gero eguneroko lanean ikusten da aplikazio handirik ez duela, sukalderako altzariak egiteko orduan esaterako. Dena dela, oinarrizko gauzak ikasten dira, behin lanean hasi eta gero ikasten dira gainontzekoak. Lanean oso gustora nabil eta Lantegi-Eskolako ikastaroek, hobetu egin badaitezke ere, etorkizunera begira irteera bat izateko aukera eman didate”.*

**AUTO  
ESKOLA**

**ARRASATE**

**7etatik 8etara klase teorikoak**

Olarte kalea, 30 ARRASATE Tfnoa: 79 89 89




## Autokrosa Arkarazon

Joan den igande arratsaldean, Arkarazoko jaien barnean Autokros proba burutu zen. Eguraldi ederraz, jende asko hurbildu zen Aretxabaletako auzora, kirol-proba ikusgarri honen gorabeherak miresteko. Hogeitazortzi auto-gidarik hartu zuten parte lasterketan. Zirkuituari arauzko itzuliak eman ondoren, sailkapeneko lehen hiru postuetan honako hauek geratu ziren: lehena, "Pelucas" Seat 127 autoarekin, bigarrena Oskar Ortueta Renault-12az eta hirugarrena Andres Renault 5 batez.

■ **Enrike Kabiketak**, izugarritzko lasterketa egin zuen joan den astean Behobia eta Donostia artean dauden 20 kilometroak betetzeko. Arrasatearra hogeitalaugarrena izan zen partaide guz-

tien artean eta lehenengoa beteranoen mailan, zorionak beraz. Oso ondo portatu zen beste gizon bat, Ramon Jausoro atxabaltarra izan zen, azkenean hirugarren sartu bait zen helmugan.



■ **Josean Gay** arrasatearrak oso denboraldi ona burutu zuen joan den urtean. Ondorioz, aurtengo denboraldiari begira makina bat oferta izan ditu korrikalari arrasatearrak. Besteak beste, Donostiako Errealak eta Euskal Herriko Unibertsitatearen taldeak eskaintza ezin hobea egin



diote arrasatearrari. Horretaz gain, Arrasate Kirolak-i, bere betiko taldeari ere gustatuko litzaioke Gay hemen bertan gelditzea. Laster jakingo dugu zer egiten duen kirolari honek.

## Hurrengo partidua

Mondrak, nahiz eta sailkapeneko azkenaren aurka jokatu, ezin izan zuen joan den astean garaipenik eskuratu Abetxukon. Mondrako jokalariek bi aldiz abantaila izan zuten, baina etxekoek gauzak parean jartzea lortu zuten.



Pasa den asteburuko berdinketa, Mondrak jarraian lortu duen hirugarrena izan da. Aste honetan, berriz, arierio zaila izango dute arrasatearrek Atxabalpeko futbol zelaian, Irungo Real Union taldea, hain zuzen ere. Irundarrena talde serio eta sendoa da, aurtengainera ondo jokatzeko ari dira eta mondragoetarraren parean daude sailkapenean. Dena dela, Izagirreren mutilek korrika asko eta borroka ugari egin beharko dute, irundarrek beteranoak izanik joko ondo kontrolatzen dute eta.

Mondran ez dago aparteko nobedaderik: Txosa, Iker eta Urretxu berriro jokatzeko moduan daude, Gerardok zigorra bete du eta ondorioz igandean jokatzeko moduan izango da.

Partidua igandean jokatuko da, arratsaldeko 3.45etatik aurrera. Atxabalpen argirik ez dagoenez, partidua hasteko ordua aurreratu egin da.

**FANCY**

**GAZTEEN MODA!** Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

**"PAL"**

**burdindegia,  
brikolage  
eta tresneria**


Uribarri etorbidea, 3  
Tfnoa: 79 31 99



# ALBERTO IÑURRATEGI

## Himalayan garaile

# PODIUMA



**A**lberto Iñurrategi, bere anaia eta beste lau lagun aurtengo udan Himalayara joan dira, Makalu mendira, hain zuzen. Hiru hilabeteko ahalginaren ondoren, Makaluko 8.481 metroak igotzea lortu zituen. Jakina da Iñurrategi anaiek, joan den urtean Pumori mendia igo zutela. Aurten, handiagoa; eta ondorengo urteetan, auskalo! Hori bai, orain artean igo dituzten mendiak baino handiagoa izango da seguruen.

Hiru hilabete etxetik kanpo, norberaren poltsikoa erdi-hustuta, bidaiaz ez ahazteko esku eta oina izoztuak... sufrimendua azken finean. Zergatik, ordea? *"Ez dakit, guretzat gero eta gorago igotzea erronka handia da. Disfrutatu ezer gutxi disfrutatzen da, nik beti esan dut 4.000 metrora artean oso ondo pasatzen dela, baina hortik gora sufritu egiten da"*. Alberto Iñurrategiren mendirako lehen pausak sufrimendu barik eman ziren, hemengoetan ibiltzen hasi bait zen. *"Aita eta amak, mendian ibiltzeko zailtasun handia izan dute eta sarrutan beraiekin joaten ginen. Gero, eskolan ere, futbola baino gutxiago, baina mendian ibiltzea ere bultzatzen zuten. Halaxe hasi nintzen"*. Mendi txikiak eginez

hasi zen Alberto Iñurrategi; gero, ohidenez, Pirineoak eta handik Himalayara, 8.481 metroraino, hain zuzen. *"Gora iritsi eta segituan jaisteko gogo, besterik ez nuen sentitu"*.

Nahiz eta behin eta berriro saiatu, aurrera begira dituen asmoei buruz, ezer garbirik ezin zaio atera Alberto Iñurrategiri. Irribarre bat eta hitz hauek bakarrik. *"Oraindik ez daukagu ezer erabakirik, ezta datorren urtean inora joango garen ere. Gainera, nahiago dugu inori ezer ez esaterik, bestela berehala zabaltzen da eta"*. Iñurrategitarrek, ez esan arren, zerbait pentsatuta badute. K-2 famatua gustora egingo lukeela aitortu zuen Alberto Iñurrategik. *"Nire ustez, zailtasun gehien dituenetariko bat da"*. Hori izango ote da? Everest-abea? Ala besteren bat?... Mendia erronkatzat badute segurutik 8.481 metro baino gehiagokoren bat.

### ◆ Igerilari-taldea

Arrasate Igeri-Taldeak antolatutik, egunero arratsaldeko betatik aurrera, IVEFera joan nahi dutenentzat entrenamenduak egiten dira Musakolako Kiroldegian. Beraz, IVEFera joatekotan direnek badakite aurrez non presta daitezkeen.

### ◆ Arrasate Atletiko Taldea

Iturripeko obrak bukatu zirenetik, Arrasate Atletiko Taldekoek berriro ere hasiera eman diete entrenamenduei, honako ordutegi honekin: astearte eta ostegunetan, arratsaldeko 5.30etan; larunbat, igande eta jaiegunetan goizeko 10.30etan. Atletismoa egin nahi dutenek, aipatutako egunetan Iturripera joatea besterik ez dute egin behar.

### ◆ Gorlako igoera

Joan den igandean, motorren Gorlarako laugarren igoera burutu zen. Ibilbideko zazpi kilometroak burutu eta gero, helmugara Angel Bideluze iritsi zen denborarik hoberenean, bigarrena Alejandro Elizburu izan zelarik.

### ◆ Neskak irabazle

Berriro ere garaipen bidera itzuli ziren Mondrako neskak. Joan den igandean, Orioko taldea etorri zen Atxabalpera eta arerio gogortzat azaldu zen. Arauzko larogitamar minutuak pasatu ondoren, markagailuan 2 eta 1 arrasatearren alde. Juxtu samar, baina ondo.



**Pando**

**PINTURAK eta  
PAPEREZTAPENAK**

Aragoi, 6-3. Esk.  
ARRASATE Tfnoa: 77 00 39

**ARRIARAN**

**UMEEN JANTZIAK**

Otalora, 29 Tfnoak: 77 05 61

**ARRASATE**



# TELE



**Informazioa  
eskatzeko  
dei egin  
77 08 15  
Hfno.ra**

## **AUTO ELEKTRONIKA**

- ASM € 77 02 36

## **FOTOKOPIAK**

- Fasprint € 77 06 11
- Ttukun € 79 46 62
- Kopyprest € 77 07 36

Profesional,  
merkatari,  
enpresari! Zure  
zerbitzuak  
arrasatear guztien  
etxeetara iristea  
nahi baduzu, ATBko  
TELETESTUA da  
behar duzun  
publizitate-bidea.

Pintore, iturgin,  
igeltsero eta beste  
edozein  
profesionalen  
zerbitzuak behar  
badituzu, jo ezazu  
ATBko TELETESTUra,  
behar duzuna  
hantxe aurkituko  
duzu eta. Egunero  
zure zerbitzura,  
goizeko 9etatik  
arratsaldeko 8ak  
arte.

# TES

## **INMOBILIARIAK**

- Anboto € 79 20 48
- Deba Garaia € 77 13 02

# TUA

## **HARATEGI- URDAITEGIAK**

- Agirre-Etxea  
€ 79 15 90

## **ILEAPAINDEGIAK**

- Eslu € 79 37 88

## **JATETXEAK**

- Gorosti € 77 06 07
- Kataide € 79 60 10
- Meson Manolo  
€ 79 22 40
- Basabe € 79 91 84

## **ZAPATADENDAK**

- Zabala  
€ 79 14 27

# Euskara, gazteena. Arrasaten ez?

**Arrasatek zergatik ez du parte hartzen "Euskara, gazteena" kanpainan?**

Kanpaina horretan parte hartzeko gonbidapena, guztia eratuta zegoela iritsi zitzaigun. Kanpainaren bultzatzailea Eibarko Udala izan zen, kanpaina nolakoa izango zen eta zertan oinarrituko zen erabaki zuena. Gainera, kanpainarako prestatu zituzten kartelak agresibo samarrak zirela iruditu zitzaigun.

Kanpaina eratuta etorri zenez, ez genuen aukerarik izan guztien artean prestatu edo behintzat tokian tokiko errealitatez egokitzea. Horretaz gain,



kanpaina parte hartuz gero gastatu beharko genukeen dirutza, milioi erdi pezeta, ez genuen aurrekontuetan sartuta.

Guzti horrengatik, pentsatu genuen kanpainak berez merezi zuela aurrera eramatea, baina ez antolatuta zegoen moduan. Ondorioz, gure asmoa datorren urtean Arrasaten bertan, gazteei zuzendutako antzerako kanpaina bereziren bat bultzatzea da. Kanpaina hori AEDren bitartez bultzatuko genuke eta bertako errealitateari begira. Hori bai, asmoa errealitate bihurtzea onartzen bada.



**Euskara, gazteena. Bergaran**

"Euskara, gazteena" kanpainarekin abiatu gara. Eta abiatu gara diot, zeren eta kanpainak ezin bait dezake beste helbururik izan: kanpaina, aurrerantzean luze iraun beharko duen elkarlana prestatzeko lehen harremana da. Horixe du helburu "Euskara, gazteena" girotze-kanpainak: torretetan jarri diren kartelek, pegatinek, irrati-kuñek, hitzaldiek, gazte-taldeekiko bilerek...


Baina abiatzea ez da nahiko, hizkuntz normalkuntzak

luze eta tinko jarraitzea eskatzen du eta hori, herri bakoitzak konpondu beharreko arazoa da.


Bergaran gazte-talde eta gazteekin nolabaiteko harremana duten hainbat entitateen artean hitzarmen bat sinatzea nahi genuke. Punturik oinarrikoenak honako hauek izango lirateke:

- a) Elkarren artean harremanak euskaraz izatea.
- b) Barne-administrazioa euskaraz eramatea.
- c) Beren iharduerak (entrenamendu, entsaio, jaialdi, etab.ak) euskaraz izatea.

Berri gehiagorik laster izango dela uste dut.



Juan Jose Uriarte "Bemni"



Estepan Plazaola



**Parques  
y Jardines**

**PARKE ETA LORATEGIEN  
SORKUNTZA  
LORAZAINTZAKO  
MANTENIMENDUA ORO HAR  
LANDARE-BIRSORKUNTZA  
HIDROEREINTZAZ**




Casa-Torre kalea. Tfnoa:94-681 90 82 ABADIÑO (BIZKAIA)

# UFO Txibiston: kalitatea eta nostalgia

«Pena da jendeak garai batetan izan zinenagatik mirestea, eta ez orain zarenagatik» komentatzen zidan lagun batek Txibistoko kontzertuaren irteeran. Eta neurri batean halaxe izan zen: Puntako taldea 10-15 bat urte direla, eta orain Txibisto bezalako areto txikitik jotzen; publiko «berririk» ez (gehienak 20 urteak aspaldi bidean utzitakoak); eta, ikusle-goaren aldetik, unerik gorenena, sutsuenak, *Doctor Doctor*, *Too hot to handle* edo *Love to love* bezalako kantekin lortu ziren, «garai haietan» (197...?) entzuten genituen kantak. Egia zen. Ez ginen ezer deskubritzen ari.

Baina nostalgiak alde batera utzita, UFOren musika ez da modaz pasatzen den horietakoa, eta 20 urteko esperientzia daukate goreneko mailan.



Ondorioa, kristoren kontzertua eskaini zigutela, gure gozamenerako. Soinu bikaina, kanta sinpleak (eta luzeak, aspaldiko usadioaren arabera) baina

maisuki moldatuak, eta soloetan segunduko 200 notarik ez, baina gutxitan bizi izan dut halako giro

majikoa kitarra bakar batekin. Kalitatea, kalitatea eta kalitatea.

Hala eta guztiz ere, gutxi batzuentzat gaueko unerik zoragarriena teloneroen eskutik etorri zen: *The Canvey Island All-stars*. Bertsioz osatutako orduerdiko ekitalditxoan hainbat klasiko eskaini zizkiguten: The Doors, The Who, Rolling Stones, Patty Smith... Orijinalei ezer inbidiatzekorik ez. Primerako musikoak eta sekulako martxa-giroa. *Txitxarron* izan baltiz eta talde nagusi bezala... Gau historikoa!

Adi ibili, bada, Txibisto bero-bero eginda bait dabil azkenaldi honetan. Abendurako, rock gogorraren zaletuentzat beste bi zita: Gamma Ray eta Ian Gillan Band (nostalgia berriz ere). Han izango gaituzue.

PATXI MONTERO



**LORAMENDI  
KIROLAK**

Dena daukagu negu-jantzietan:  
txamarrak, forru polarrak, lumatxak.  
Gore Tex-ak...  
Eski-materiala ere heldu zaigu.

**PASA ZAITEZ HEMENDIK!**

Maiatzaren 1a Plaza. ARRASATE Tfnoa: 79 97 24

## ◆ AED lehiaketak

172 pertsona izan dira AEDk antolatzen dituen lehiaketetara lanak aurkeztu dituztenak. Ipuinen arloran 127 lan aurkeztu dira, 5 helduen mailan, 12 ertainetan eta 110 txikietan. Bertsoei dagokienez, lehiaketan 19k hartu dute parte, 4k helduen mailan, 6k ertainetan eta 9 txikietan. Poesian, berriz, 8 lan aurkeztu dira, ertainen mailan 3 eta txikienean 5. Komikietan 6 lan aurkeztu dira, argazkigintzan 5 eta itzulpenen sailean 7. Irabazleak nortzuk izan diren abenduaren 9an jakingo da; sari-banaketa, berriz, abenduaren 21ean izango da.

## ◆ Aretxabaleta abesbatza

Aretxabaleta abesbatzak hurrengo egunetan izango du zer eginik. Azaroaren 17an, Avileseko VIIIgarren Nazioarteko Abesbatzen lehiaketan parte hartuko du. Abenduaren 14ean aretxabaletarrek Logroñon kantatuko dute. Azkenik, abenduaren 21ean Baigorriara joango da Aretxabaleta Abesbatza, bertan kontzertua eskaintzeko.

## ◆ The Damned Txibiston

Larunbat honetan, azaroak 16, britainiar Punk mugimenduan historikoa izan den *The Damned* taldea izango dugu zuzenean Bergarako Txibiston. Kontzertua gaueko 11etan, *Parabellum*-ekin telonero gisa.

## Iñaki Bruña

## Pintura eta argazkilaritza nahastu guran

Iñaki Bruñak orain gutxi Monterronen argazkiz eta pinturaz osatutako erakusketa egin zuen. Monterronekoa, bere bizi guztian egin duen lehen erakusketa izan da.

— Nola joan da erakusketa?

— Beno, jende aldetik ez dut uste oso ondo egongo zenik, normalean gertatzen den moduan. Dena dela, ez dakit seguru zenbat jendek ikusiko zituen nire argazki eta koadroak. Orokorrean, esan didate argazkiak ondo zeudela eta koadroei buruz eritzi desberdinak jaso ditut: batzuek gustora ikusi dituzte eta beste batzuek ez hainbeste. Ez dakit, ni behintzat gustora nago neure lanarekin.

— Nolakoak ziren argazki eta koadroak?

— Argazkiak, gehienak zuri-beltzezkoak eta batzuk akuarelaz margotutakoak, Arrasateko toki eta jende berdina erakusten zuten. Koadroak, berriz, akuarelaz eginak, ez zuten gai konkreturik.

— Nonbait ibili zara ikasten?

— Ez, ikastaroren bat



edo beste egin dut, baina esango nuke neure kontura ikasi dudala. Eskulanetarako trebezia betidanik izan dut eta beste gauza batzuk ere egiten ditut: egurra landu, eskultura, komikiak.

— Hobbya ogibide bihurtzeko asmotan?

— Gustatuko litzaidake, baina oso zaila da. Orain

lantegi batean nabil egun-erdiz eta beste erdia nire gauzetarako erreserbatuta daukat. Lantegia eguneroko putada da, frustrazio handia. Kooperatibena ere gezur hutsa besterik ez da, kooperatibak ez dira existitzen, ez orain eta ez duela bost urte; agian, lehen bai. Baserri batera joango nintzateke bizitzera, baina ez baserriko lanak egiteko, neure kontura bizitzeko baizik. Ez dakit, gauza misto bat egingo nuke, baratza landu, behiren bat akaso eta gero egindako eskulanak salduko nituzke, pertxak esate baterako.

— Zer da artea zuretzat?

— Guztiok zerbait daramagu barruan eta artea hori kaleratzeko bide egokia dela uste dut, geure nortasuna azaleratzeko aukera bat, besterik ez.

— Zer iruditzen zaizu Arrasateko arte-maila?

— Ez dut gehiegi ezagutzen beste herrietako maila nolakoa den, beraz ez nago konparazioak egiteko moduan. Dena dela, uste dut Arrasaten maila polita dagoela; badago hor jende-talde polit bat gai hauetaz arduratzen dena.

Gustora nago  
Monterronen  
egindako  
erakusketarekin

# KiDE

## Paperdenda eta jostailudenda

Erguin, 5 ARRASATE Tfnoa: 79 25 77

# URRATS

## AHOLKULARITZA

GARIBAI, 3

Tfnoa: 79 87 74

ARRASATE


# Gazteen problematika

**A**rrasateko EGI (Eusko Gaztedi)ren iritziz, bada gure herrian zenbait arazo —bailaratako eta Euskadiko beste herritakoen antzerakoak— gazteoi zuzenean dagozkigunak eta, benetako irtenbiderik aurkitzen ez zaien bitartean, gure bizimodua baldintzatzuten dutenak: langabezia, derrigorrezko soldaduzka, etxebizitza, droga, etab.

Arazo guzti horiek harreman estua dute elkarren artean, gurpil zoroa eratuz: soldaduzka egin gabe zaila da lehen lanpostua lortzea, eta ekonomikoki ez bazara independente ezin duzu zeure lehen etxebizitza erosi edo alokatu, eta egoera etsigarri honetan errazagoa da arazoak zuzendu ordez okerragotzen dituzten bideak hartzea.

Gure herrian eta eskualdean aurrerapen handiak egin dira kultura eta hezkuntza mailan, nahikoa aukera zabaldua dugularik orain.

Dibertsioa ez da agian bide sanoegietatik ibiltzen,



oso handia bait da dibertsioa/alkohola lotura eta honen adierazgarri gisa hor daude asteburuetako gauak, Maritxu Kajoi, etab.

Guk, EGItik, gure ikuspegia eskaini nahi dugu eta kezkatzen gaituzten arazoren batzuentzako konponbideak proposatu.

Soldaduzkarako zozketa "jasaten" ari garen egunotan, behin eta berriro agertu nahi dugu soldaduzkaren eta beronen ordezko izan litekeen beste edozeren aurkako jarrera. Armadak

guztiz baztertzea eskatzen dugu.

Gizarte desmilitarizatua lortzea da gure helburua; eta beraz, egungo Legea aldatzen ez den bitartean, zeraren alde agertzen gara: soldaduzka egin bitartean ere kontzientzi eragozpenerako eskubidea onartzea, objektore-izaera epaimahai mediati-zatuak ez erabakitzea eta legezko elkarte eta alderdi poliitikoetako militantzia bezalako iharduerei gizarte-interesa aitortzea.

Gure laguntza eskaini nahi diegu kontzientzi eragozpen edo intsumisioari

buruzko gaiak aztertu edo tramitatu nahi dituztenei.

Langabeziarena gai luzea da eta monografikoki aztertu beharko genuke. Esan, besterik gabe, arlo honetan eta beste hainbatetan gazteok ez gaituztela behar bezala tratatzen. Esperientzia eskatzen zaigu inoiz egin ez ditugun lanetarako, eta ez ditugu lan horiek egin esperientziarik ez genuelako eta ez dugu esperientziarik... betiko gurpil zoroa!

Bukatzeke, eta dibertsioari dagokionez, duintasuneko lokalen beharra erreibindikatzen dugu, ez direnak izango gaur egungo taberna edo gaztetxeak, ongi pasatzea alkohola hartzea izan ez dadin, osasuntsu dibertitzea baizik.

Azkenik, dibertitzeko aukera edo gazteriarentzako lokalei buruz, aire zabalean gaude pixka bat, eta errealtatea ez zaigu distiratsuegia agertzen.



EGI ARRASATE  
(Erredakzioan itzulia)

## ITSASKI

arrandegia  
arrain freskoa  
eta jaki izoztuak

Urbe Auzoa  
Arrasate 79 98 94

## Gabriel Elorriaga Dka.

Loditasuna • Zelulitia  
Zelulolipolisiaren  
tratamendua

Santa Kruz, 24-1º (1º C Eskailera)  
ARETXABALETA Tfnoa: 79 13 54

## HUETO Doktorea

Eztarria, sudurra,  
belarriak

Ordua eskatzeko: 79 81 11  
79 81 00

Olarte kalea, 43 Arrasate



# ETXE PARE - BILINTX LIBURUBANDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 BERGARA Tfnoa: 76 40 50

## ETXEBIZITZAK

- Etxebizitza alokatuko nuke Aretxabaletan ala Eskoriatzan. Tfnoa: 79 59 60. Josu.
- Bilbon ikasle-pisua osatu nahi nuke. Tfnoa: 79 24 51. Nerea.
- Hiru langile gara Arrasaten alokatzeko pisu baten bila. Tfnoa: 79 51 49.
- Bi oheko gela alokatzen da. Tfnoa: 79 07 73.
- Etxebizitza baten bila gabilta Arrasaten. Dei egin lanorduetan 79 02 11 (Alberto) eta 79 36 11 (Izaskun) tfno. etara.
- Munarren etxebizitza salgai. Eguzkitsua, eraberritua, sukaldea guztiz ekipatua, 2 bainugela, 3 logela, egongela, trastelegia, berogailua gas naturalaz, etxe guztian musika sistema, satelitezko TB gela guztietan, terraza polita ikuspegi ederrarekin, telefonoa, sotoa, garajea aukeran. Tfnoa: 77 02 81. Gaueko 9.30etatik 11etara.

## LANA

- Lanak ordenadorez inprimatuko nituzke. Dei egin 7etatik 9etara 79 58 72 tfnora.
- Bestaldeko irakasle batek frantseseko klase partikularrak ematen ditu. Dei egin bazkalorduetan 79 20 24 tfno.ra.
- OHoko klase partikularrak emateko prest. Tfnoa: 79 19 19.
- Klase partikularrak ematen dira (fisika, kimika eta matematikak). Dei egin 77 13 95 tfno.ra.
- Emakume euskalduna umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest. Tfnoa: 79 07 73.
- Fisikako partikularrak behar dira BT12. kurtsoa. Tfnoa: 79 37 60.
- Injinerutzako ikasle batek klase partikularrak emango lituzke (BUP, COU). Dei egin 88 28 63 Tfno.ra. Aitor.

- Ingeleseko klase partikularrak emateko irakaslea behar da. Tfnoa. 77 12 41 Agurtzane.
- Etxeko lanak egiteko eta umea zaintzeko prest dagoen emakumea behar da. Dei egin arratsaldeko 8etatik aurrera 79 71 86 tfno.ra. Marisol.
- FP2 eginda eta montaje elektrikoan esperientzia duen mutil bat edozein instalazio egiteko prest: goiargituak, automata, automatismoak, etab. Prezio erdian. Harremanetarako dei egin 77 10 91 tfno.ra.
- Etxeko lanak egin edo umeak eta pertsona nagusiak zainduko nituzke. Tfnoa: 79 54 03
- Neska euskalduna behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tfnoa: 79 90 57. Aretxabaleta.
- Eguerdiko 12.30etatik 1-etara euskarazko mintzapraktika-klaseak emateko Arrasateko pertsona bat behar da. Dei egin 76 15 76 tfno.ra arratsaldeko 8.30etatik aurrera. Reyes.
- Igeleseko klase partikularrak behar ditut. Dei egin 8etatik aurrera 79 72 92 tfno.ra. Marisol.
- Zure lana utzi barik 10.000 PTA irabazi nahi badituzu, dei egin 77 14 81 tfno.ra.
- Neska prest etxeko lanak eta garbiketa orokorrak egiteko. Tfnoa: 79 98 19.
- Neska euskalduna behar da goizez ume bat zaintzeko eta arratsaldean etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 94 92.
- 5.000 PTA irabazi nahi badituzu lan samur batean dei egin 79 03 88 tfno.ra. Gaueko 9.30etatik 11etara arte. Joseba

## SALEROSKETAK

- Ordenadore pertsonala salgai. Eredua: Amstrad CPC 6128 diskete unitatekoa (Basic-endako berezia). Oparia: telebista bihurtzailearekin, jokuak eta bihurtzailera elkartutako iratzargailua. Dei egi 79 13 77 tfnora.

- Kanpineko hozkailu berria salgai. Dei egin 9etatik aurrera 79 90 55 tfno.ra.
- Itzul eta Sor saileko liburuak salgai. Merke eta berriak. 9-13 urte bitarteko haurrentzat. Tfnoa: 79 80 91. Ander.
- Cibro-Kamin berogailua egoera oso onean salgai. Tfnoa: 79 56 46.
- Charli Mousser hamabi puntatako granpoiak, Serval lo-zakua eta espelaz (boj) egindako nafar dultzaina salgai. Tfnoa: 77 09 72
- Oso egoera onean dagoen eta egurrez nahiz ikatzez dabilen berogailua salgai. Tfnoa. 79 45 80
- Orbea furia bizikleta oso egoera onean salgai 10.000 PTAtan. Dei egin 79 41 71 tfno.ra 8etatik aurrera.
- Logelako altzariak, armairu, komoda, etab. (somiera eta koltxoia ezik) egoera onean eta merke. 8etatik aurrera 79 41 71 tfno.an.
- Olivetti Linea 98 idazmakina salgai. Tfnoa: 79 11 44. 9etatik aurrera. Miren.
- Renault Expres SS-AC egoera onean eta oso merke salgai. 45.000 Km. Tfnoa: 79 82 41

## DENETARIK

- Egunero Bilbora (Leioara) joateko kotxea behar dut, gastuak erdibana. Dei egin gaueko 11etatik aurrera 79 66 99 tfno.ra.
- Abuztuaren 2an spaniel-breton arrazako txakurra *desagertu* zen. Izena Mendi (txuria eta marroia da). Zerbait badakizu dei egin 79 24 66 tfno.ra.
- Egunero eguerdiko 2etarako Eibarren egon behar dut. Norbait eramateko prest badago dei egin dezala 79 22 63 tfno.ra (gaueko 9.30etatik aurrera).
- Bilbora (Leioara) arratsaldez bazoaz, dei egin 79 22 63 tfno.ra, gaueko 9.30etatik aurrera.

## ARRASATEN HILDAKOAK

Juana Francisca Viteri Beitia,  
azaroaren 7an. 80 urte.

Simon Etxebarria Garaizabal,  
azaroaren 8an. 70 urte.

Vicente Ibabe Errasti,  
urriaren 10ean. 75 urte.

Amparo Rodriguez Barroso,  
azaroaren 11n. 72 urte.

## ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDE DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA: .....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

# Bertsotan

## Uso pasa

1

Uso pasa heldu da inguru hontara ia denok horretaz konturatu gara uso batzuk arrazoiz daukate ikara ez bait dira helduko beren helmugara.

2

Denbora-pasa ala kirol txar bat ote? Hori dela ta behintzat bada hainbat uste batzurentzat ona ta besterentzat kalte baina txori gaixoek zer culpa daukate?

AGURTZANE INURRATEGI




# Zer nahiago?

## Izaskun Mayora

### La Bermeana arraindegikoa

- **Mariskoa ala angulak?** Nik angulak nahiago
- **Musika klasikoa ala herri-musika?** Musika klasikoa hobea da, baina nik ez dut ulertzen eta nahiago dut herri-musika.
- **Sardina zaharrak ala sardina freskuak?** Sardina zaharrak.
- **Lagunekin afora ala bazkaria?** Bazkaria, horrela tertulia luzeagoa egin daiteke.
- **Siesta ala goizean berandu jaikitzea?** Goizean berandu; normalean ezin naizenez ohean berandu arte gelditu, ahal dudanean aprobetxatzen dut.
- **Arraina izoztua ala freskoa?** Duda gabe, freskoa.
- **Makilatuta ala makilatu barik?** Makilatuta, baina ni neu ez naiz makilatzen.
- **Bezero berritsuak ala isilak?** Berritsuak arrakatsak izan daitezke; serioak hobe.
- **Goiza ala arratsaldea?** Goiza.
- **Haragia ala arraina?** Arraina, eta ez nik saltzen dudalako; bestela ere, nahiago arraina.
- **Tangoa ala baltsea?** Tangoa.
- **Jasotzeko, lore-sorta ala liburua?** Liburua, baina ez daukat irakurtzeko astirik; bestela, momentuan gehiago estimatzen ditut loreak.
- **Arraina garbituta ala dagoenetan saldu?** Dagoenetan.
- **Etxea ala kalea?** Etxea.
- **Bixigua ala legatza?** Bixigua.
- **Eskularruz ala eskularru barik?** Eskularruz.
- **Aukeran non erosiko zenuke etxea, Irati inguruan ala Donostian?** Irati inguruan, leku lasaiak gustatzen zaizkidalako.
- **Eskuz ala kalkuladoraz?** Kalkuladoraz, errazagoa da.
- **Arraina izotzetan ala hozkailuan?** Arraina, kontserbatzeko, hobeto izotzetan.



## ITURRIOTZ taberna

**GIRORIK  
JATORRENA !!**

Tfnoa: 79 16 04



## J. M. Heriz

**Konpromezurik gabeko  
aurrekontuak**

Otalora Lizentziatua. Arrasate





Etxaguen, 1976ko urtarrilak 3

**E**

uskal Herriko beste hainbat menditan bezala, Etxaguenen, Aramaio gainean, bada txabola zahar

bat, hamarretako, bazkari edota afariak egiteko erabiltzen dena hain zuzen.

1976. urtean, urtarrilaren 3an, lagun-koadrila batek Etxagueneko txabolan bazkaria egitea pentsatu zuen. Goizean abiatu eta eguerdi aldera txabolarantz hurbildu ziren argazkian agertzen diren **Jose Luis Iñarra, Sabin Arrieta, Miguel Arrieta eta Eusebio Iñarra**. Ikusten denez, Sabinekin eskuan daraman poltsak argi adierazten du bazkariaren zati bat hor zeramatela.

Behin Etxagueneko txabolarira iritsi eta ondo bazkaldu eta gero, lagun koadrila lasai-lasai plantatu zen txabola aurrean. Hor dituzue zutik, ezkerretik eskumara: **Jose Ignacio Etxebeste, Eusebio Iñarra, Juantxu Axpe, Sabin Arrieta, Jose Luis Iñarra, Juan Egidazu eta Luis Jabier Arrieta**. Makurtuta, ezkerretik eskumara: **Jose Ramon Arrieta, Aurelio Gonzalez, Mendaratx, Andoni Axpe, Urrutia eta Miguel Arrieta**.

**ZUMADIA**  
baserri-altzariak

Antzinako eta beste garaietako gauzak

Larunbat goizetan zabalik

Maiatzaren 1a Plaza, 4 OÑATI Tfnoa: 71 60 75

“EDERTU”  
ileapaindegia




San Andres auzoa 79 04 28



## ARIES

Martxoaren 21etik  
Apirilaren 20ra

Nolabaiteko oreka lortuko duzu bizimodu afektiboari dagokionez. Diru aldetik ondo ibiliko zara, baina, betirako izango denik ez pentsa. Ondo aprobetxa ezazu egoera hau. Dagoenean bonbon eta ez dagoenean...



## LEO

Uztailaren 23tik  
Abuztuaren 23ra

Besteren baten esanetara makurtu beharrean izango zara. Eziozu bestelako garrantzirik eman batzuetan horrela suertatzen da. Bizimodu afektiboa onik eta egoki eramango duzu. Errespetatu jatorduak



## SAGITARIUS

Azaroaren 23tik  
Abenduaren 21era

Irudimenez gainezka zaude eta ipuin politak asmatuko dituzu. Kontuz diozunarekin, badakizu batzuek dena sinisten dutela eta. Erromantzeren bat biziko duzu; laburra baina polita da.



## TAURUS

Apirilaren 21etik  
Maiatzaren 20ra

Zeozer aldatzen ari da zure barnean. Besteek gehiegi eskatzen ote dizuten pentsatzen emango dituzu egunak. Saia zaitez bakoitzari ematen, zure ustez, merezi duena. Usteak ustel surtatzen dira askotan.



## VIRGO

Abuztuaren 24etik  
Irailaren 23ra

Ondo merezitako diru-ordainen bat izango duzu. Honek zure ekonomia orekatuko du eta beste zeregin eta ardurak lasaia bete ahal izango dituzu ondorioz. Badirudi maiteminduta zaudela eta zu zeuk ez daukazu oso garbi.



## CAPRICORN

Abenduaren 22tik  
Urtarrilaren 20ra

Sormenerako gaitasuna puri purian daukazu. Azkenaldian arduratuta zauzken lanerako aprobetxa dezakezu aukera. Laguntasun paregabea eskainiko dizun norbait ezagutuko duzu.



## GEMINI

Maiatzaren 21etik  
Ekainaren 20ra

Bizipoza daukazu eta abenturero ibiliko zara datozen egunetan. Hara eta hona ibiliko zara gustora. Poza kutsagarria izango da eta ingurukoak ere zure modura ibiliko dira. Bidaiaren bat egingo duzu.



## LIBRA

Irailaren 24etik  
Urriaren 23ra

Barne-pakea daukazu eta toki orotan atsegina izango zara. Gauza guztien alde ona baloratzen duzulako zaude egoera honetan. Jarraitu horrela mesede handia egiten bait diozu zeure buruari eta.



## AQUARIUS

Urtarrilaren 21etik  
Otsailaren 19ra

Buruargi egongo zara eta normalean kasurik egiten ez diezun gauzekin disfrutatu egingo duzu. Gauzak patxadaz hartzeak beste lasaitasun bat ematen duela konturatuko zara. Majo lo egingo duzu.



## CANCER

Ekainaren 22tik  
Uztailaren 22ra


Buruargi egongo zara eta zure lorpenak primerakoak izango dira. Momentu honetan asmoak gauzatzea duzu eginbeharririk garrantzitsuena. Ebitatu gurpil zoroetan erortzea, horrela ez bait zoaz inora.



## SCORPIO

Urriaren 24etik  
Azaroaren 22ra

Izugarrizko borondatea daukazu; hori bideratzea zeure esku dago, joera bai onerako bai txarrerako ekintzak burutzekoa izan liteke. Onerako hartzen baduzu, zorionak.



## PISCIS

Otsailaren 20tik  
Martxoaren 20ra

Erabateko lotura daukazu lanarekiko. Eskaintza interesgarriak egingo dizkizute, hark itzazu ekintzat abiapuntutzat asmatu egingo duzu. Diru asko irabaziko duzu horrela jokatzuz gero.

# BIDEO-EMANALDIA

# Batman

Tokia: **Monterron Kultur Etxean**


Eguna: **azaroak 16an**

Ordua: **arratsaldeko 4.30etan**

Prezioa: **50 pezeta**

Sarrerak: **Monterronen**

Antolatzailea: **Arrasateko Udaleko Euskara Batzordea**





## Txatxaran

Osteguna. 21.15

Nola? Oraindik ez dakizula? Ba bai, ATBn saio berri bat daukagu, elkarriketa-saioa, eta *Txatxaran* du izena.

Datorren ostegunean izango duzue berriro ikusgai, 21.15etan. Oraingoan, Maider Egués-ek Igor Leturia bidaiaria ekarriko du estudioa.

Ea ba, ikus-entzule; ez gero oraingoan hutsik egin!

## Telebegi

- Azken bolada luzean, bazirudien ATBko makinak sorginduta genituela; arraioa, ezin behar bezala lanik egin! Gauzak hobetu egin dira zertobait, ordea, eta antza denez aurrerantzean sikiera normaltasunez burutu ahal izango ditugu geure emisioak. Hala bedi!

- ATBko sorginak aipatu ditut. Eta lepoa emango nuke sorgin horiek ez dutela futbola batera atsegin. Orain bi aste ez ziguten utzi Mondra-Gol saioa hasi ere egiten. Pasa den igandean, berriz, programa erdi-erdian eten behar izan genuen, juxtu golak heltear zeudenean. A zein lelo aurpegiak gelditu zitzaizkigun estudioan geundenoi! Makina madarikatuak, behintzat arratsaldeko bostetan izorratu izan balira domeka arratsaldea libre edukitzeko...

- Etapa berria bizi dugu geure Telebistan. Laster bi hilabete beteko dira egunero emititzeari ekin genionetik. Tira, ez dago gaizki. Ondotxo erakutsi dugu kantitatea gehitzeko gai garela. Baina zera bururatzen zait, erronka berri bat dugula orain begibistan. Zein erronka? Kalitatea hobetzea. Asmatuko ote dugu!

- Lerro hauek bukatu aurretik, laugarren gogoeta bat. Azken asteotan lagun berriak ari zaizkigu azaltzen ATBra. Beste lagun batzuk, ordea, joanak dira dagoeneko. Guztiek ere eskerrik beroenak merezi dituzte. Kasu gehienetan musutruk eskainitako lan horregatik izango ez balitz, proiektu hau aspaldi itoa eta agortua legoke!

JON ANDUEZA

## Telebelarri

◊ Noski, Arrasateko Ospitaleak hutsuneak ditu. Mediku espezialista gehiago, zerbitzuak hobetu edota edifizioa berriztu beharra dago".

(Mikel Larunbe, Ospitaleko zuzendariak *Berriak*-en)

## Mondra-Gol

Aste honetan:  
**Mondra-Real Unión**

**Igandean  
9.15etan**

## Programazioa

17

### IGANDEA

9.15etan, *Mondragol*. Mondra-Real Unión partidua-ren ordu erdiko laburpena.

19

### ASTEARTEA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*. Egunean zehar jasotako berriak.

9.15. *Erreportaiak*. Aste honetan ere bi erreportaia interresgarri izango dituzue ikusgai.

21

### OSTEGUNA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*. Albistegia.

9.15. *Txatxaran*. Maider Egués-ek zuzendutako elkarriketa-saioa. Aste honetako gonbidatua, Igor Leturia Zabala.

18

### ASTELEHENA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*. ATBren albiste-emanaldia.  
9.15etan, *Mondra Sport*. Arrasateko Kirol-mundua-  
ren errepara.

20

### ASTEAZKENA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*. ATBren albistegia.


22

### OSTIRALA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*.  
9.15. *Erretratoa*. J.R. Elortzak, *Dorita Martinez Zabala*, Copreciko bazkidea elkarriketatuko du.

# 1. PRENTSA LOKALARI BURUZKO IHARDUNALDIAK

**L**ehen aldiz Euskal Herriko herri-pren-  
tsak elkartu eta esperientziak trukatzeko  
aukera izango du, baita hemendik kanpoko  
(Katalunia, etab. etako) proiektuak  
ezagutzeko ere.



• **A r r a s a t e n** •  
**azaroaren 22 eta 23an**

Antolatzailea:  
**AED**

Laguntzailea:  
**Lan Kide Aurrezkie**

Babesleak:  
**Gipuzkoako Foru-Aldundia**  
**Nafarroako Gobernua**  
**Arabako Foru-Aldundia**  
**Arrasateko Udala**